


EH Bildu garaile, aldea handituta



Koalizio abertzaleak gehiengo absolutua berretsi du. Zinegotzi bat gehiago (11) lortu du EAJ-PNVren (6) kaltetan.





UDAL HAUTESKUNDEAK 2023 UDAL HAUTESKUNDEAK 2023 UDAL HAUTESKUNDEAK 2023

ehbildu

IZARO
ELORZA
ARREGI


ehbildu

XABIER
IGARTUA
LOIDI

ehbildu

LIERNI
ALTUBE
MOIUA

ehbildu

ANIK
ZUBIZARRETA
ARTURO


ehbildu

SAIOA
ARKONADA
PEREZ

ehbildu

IKER
OÑATE
AIASUI

ehbildu

ASIER
LAUZURIKA
ARRONDO**AMAIA**
EROSTARBE
LETAMENDI**XABIER**
MUGARZA
AYASTUY**ITZIAR**
ALONSO
AGIRRE**EVA**
GAYUBO
CAZORLA

Gehiengo osoa berretsi du EH Bilduk

- Koalizio abertzaleak 11 zinegotzi lortu ditu —1 gehiago— eta EAJk 6 izango ditu —1 gutxiago—.
- Iزار Elorzak jarraituko du alkatetzan.

EH Bildu gailendu da udal hauteskundeetan, gehiengo absolutua lortuz, laugarrengoz jarraian, eta EAJrekiko alde handituz. Koalizio abertzaleak 11 zinegotzi izango ditu udalbatza berrian —duela lau urte baino 1 gehiago— eta jeltzaleek 6 ordezkari —1 gutxiago—.

Datu absolutuei erreparatu-tuz (Foru Aldundiko datuak) EH Bilduk **3.278** bozka jaso

ditu (2019an baino 342 gutxiago), EAJ-PNVk **1.932** bozka (-427), PSE-EEK **218** (-101) eta PPk **55**. Hau da, 2019ko emaitzekin alderatuz, guztiek egin dute behera —PP ez zen aurkeztu duela lau urte—. Baina kontuan hartuz partehartzea ia 9 puntu jaitsi dela (%73tik %64ra), EH Bildu da botoen portzentajea gora egin duen alderdi bakarra, %56,78tik %58,74ra; EAJk bi



5.638 herritarrek (%64,12) eman zuten botoa maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. Duela lau urte %72,47koa izan zen partehartzea

puntu pasatxo egin du behera (%37,46tik %34,62ra) eta PSE-EEK ere bai, %5,07tik %3,90era.

ALDERDIEN BALORAZIOAK

EH Bilduren izenean Iزار Elorzak oso positibotzat jo ditu emaitzak. “Parte hartzeak behera egin arren, botoen portentzia gora egin dugu eta horri esker zinegotzi bat

gehiago lortu dugu. Herritarren gehiengoak gure aldeko apustua egiten jarraitzen du eta oso pozik gaude”.

Elorzak eskerrak eman dizkie EH Bildurengan konfiantza jarri duten herritar guztiei. “Azken urteetan egindako lana balioan jarri dela uste dut. Herritarrek gure ereduaren aldeko apustua egin dute eta gogotsu gaude, are ilusio eta indar

KUNDEAK 2023 UDAL HAUTESKUNDEAK 2023 UDAL HAUTESKUNDEAK 2023



ehbildu
IÑIGO
RUIZ
BARRON



ehbildu
IÑAKI
OLALDE
ALTZELAI



ehbildu
IDOIA
AIERBE
LIZARRALDE



ehbildu
EKHINE
MENDI
ALTUBE



JON KEPA
GERRIKAGOITIA
ARRIEN



CLAUDIA
VALDIVIESO
ASCUI



Udalaren egituraketa berria

Kolore bikoa izango da udalbatza berria, aurreko hiru agintaldietan bezalaxe. Oñatiko herriari 17 zinegotzi dagozkio (10.001-20.000 biztanle arteko herri guztiei bezalaxe), eta horietatik 11 EH Bildurenak izango dira, eta 6 EAJ-PNVrenak. Horrenbestez, ezkerreko alderdi abertzaleak gehiengo osoa izango du eta Izaro Elorza izango da alkatea hurrengo lau urteetan. Ekainaren 17an hartuko du aginte makila. Udalbatza osatuko duten 17 zinegotzietatik 10 aurrenekoz ariko dira zinegotzi lanetan.

«Azken urteetan egindako lana balioan jarri dela uste dut. Herriarren gehiengoak gure ereduaren aldeko apustua egin du eta gogotsu gaude lanean jarraitzeko»

IZARO ELORZA
EH BILDU



«Oñatiarren alde lanean jarraitzeko konpromiso irmoa dugu. Herriarentzat interesgarriak diren proiektuak ditugu eta horietako batzuk aurrera ateratzen saiatuko gara»

AMAIA EROSTARBE
EAJ-PNV

HAUTESKUNDEAK ZENBAKITA

UDAL	2019	2023	Zinegotziak
EH Bildu	3.620	3.278	11 (+1)
EAJ	2.359	1.932	6 (-1)
PSE-EE	319	218	-
PP	-	55	-
Abstentzia	2.443	3.155	
Zuriak	77	97	

BATZAR	2019	2023
EH Bildu	3.349	3.073
EAJ	2.420	1.943
PSE-EE	305	243
Podemos	232	176
PP	97	64
STOP	-	17

* Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia

Ekainaren 17an
eratuko da udalbatza berria

handiagoarekin, esku artean ditugun proiektuei ekiteko, herritarrekin batera, noski, orain arte bezala».

EAJren izenean, Amaia Erostarbek eskerrak eman dizkie hautagaitza osatzeko konpromisoa erakutsi duten pertsoneri eta botoa eman dieten herritar guztiei.

Emaitei dagokienez, balorazio gazi-gozoa egin du. «Ezin izan diogu eutsi duela lau urte ozta-ozta lortutako zazpigarren zinegotziari, eta pena da, baina ilusioz eta gogotsu gaude herriaren alde lanean jarraitzeko. Programa landua eta, gure ustez, herriarentzako interesgarriak diren proiektuak ditugu, eta saiatuko gara proaktiboak izaten, proiektu horietako batzuk aurrera ateratzen, eta gure lanari ikusgarritasun handiagoa ematen herriko komunikabideetan, bestela ez garelako existitzen herritar askorentzat». ■

Udal Gizarte Zerbitzuak Bidebarrieta kalera bueltatuko dira ekainaren 5ean

Bulegoak berritzeko lanak amaituta, Udal Gizarte Zerbitzuak Bidebarrieta kaleko 10-12an kokatuko dira berriz ere ekainaren 5etik aurrera.

Espazioari etekin handiagoa ateratzea, bulegoetako argitasuna, aireztapena eta klimatizazioa optimizatzea, eta, batez ere, herritarrekiko arreta zerbitzuan diskrezioa eta pribatutasuna bermatzea dira udal gizarte zerbitzuen egoitzan burutu diren berritze lanen helburuak, eta bertako arduradunak oso pozik daude emaitzarekin.

Alde batetik sarrera-gunea berrantolatu da. Itxaron gela bat egokitu da eta beirazko ate automatikoak ipini dira espazio ezberdinak bereizteko: itxaron gela, harrera gunea eta gizarte langileen bulegoak. Horri esker, zerbitzu hauetan hain garrantzitsua den diskrezioa bermatuko da, bai langileentzat eta bai herritarrentzat ere, zerbitzuaren kalitatearen mesedetan.

Bestalde, bulegoen arteko banaketak eta barrualdera ematen duten hormak kristalezkoak dira orain, eta, horri esker, askoz ere argi natural gehiago sartuko da.

Aireztapen eta klimatizazio sistemak ere berritu dituzte, eta barrualdeko bulegoetan hormetako isolamendua areagotu dute, hozberoa mantentzeko eta, horrenbestez, argindar kontsumoa murrizteko.

Espedienteak gordetzeko artxiboa, bilera-gela eta komunak ere berdimentsionatu dituzte eta, horri esker, bulego bat gehiago atera da eta, beharra egongo balitz, lan-leku gehiago egokitzeko espazioa ere irabazi da. Umeentzako jolas-gune bat ere egokitu dute, kontuan hartuta askotan

GIZARTE ZERBITZUAK OÑATIKO UDALA

- Ordutegia:
9:00-14:00
- Astelehenetik ostiralera
Asteazkenetan itxita
- Txandak eta informazioa:
- 943 037 700
- ongizatea@onati.eus

DATUA

**Aurtengo lehen
lau hilabeteetan
bataz beste 340
herritarrek jo
dute udal gizarte
zerbitzuetara**

gurasoek seme-alabekin joan behar izaten dutela gizarte zerbitzuetara. Berritze lanek 283.163 euroko (BEZ barne) aurrekontua izan dute.

FUNTZIONAMENDUAN ALDAKETARIK EZ

Bulegoen leku-alaketak ez du eraginik izango gizarte zerbitzuen eguneroko jardunean, eta herritarrei begira orain arteko egutegi-ordutegia mantenduko da (ikusi taula).

Euskal Gizarte Zerbitzuen Sistemak garapen handia bizi izan du azken urteetan, eta gero eta gehiago dira bertara informazio eta laguntza eske jotzen duten herritarrak. Aurtengo lehen lau hilabeteetan, esaterako, bataz beste 340 herritarrek jo dute gizarte zerbitzuetara, eta, horrez gain, hilean 477 telefono dei atenditu dituzte, bataz beste. ■



Bidebarrieta kaleko 10-12ean egongo dira gizarte zerbitzuak



“BEHAR DUZUN ZUNTZAK OPARIA DAKAR”

ZUNTZA 300Mb

- + 2 MUGIKOR LINEA,
PARTEKATZEKO 30GB-EKIN
- + DEI MUGAGABEEKIN

39,90€/HIL.

AGILE TELEBISTA 6€/HIL.

Eta dohainik **eraman aire**
bidezko CECOTEC frijigailua
edozein mugikor + zuntza tarifa
kontratatzuz



PROMOZIO HONEK SOILIK HEMEN BALIO DU:

LIZKER
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZ barne. Doako instalazioa. Iraupena 3 hilabete. Prezio honek lehenengo 12 hilabeteetarako balio du, ondoren 42,90€. Aire bidezko Cecotec frijigailuaren opari-promozioa 2023ko ekainaren 1etik 30era, edo stocka amaitu arte, LIZKER Informatika dendan MÁSMÓVIL-eko edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz. Oparia, zuntza instalatutakoan eskatu daiteke. Kontsultatu gainerako baldintzak LIZKER Informatika dendan.

MÁSMÓVIL
AHORRA, SIN MÁS



Lagun Leku
elkartean
martxan jarri
den taldeko
kideak lanean

EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA jarri du abian Udalak

» 65 urtetik gorako herritarrei zuzendutako zerbitzua da. » Gaitasun kognitibo eta fisikoak lantzea du helburu, herritarren bizi-kalitate eta ongizate mailari eusteko. » Astean bina saio egingo dira, Lagun Leku eta Pake Leku elkarteetan.

Maiatzaren 22an jarri zen martxan Eguneko Arreta Zerbitzu berria Oñatin. Adineko pertsonen autonomia indartzea da zerbitzuaren helburua, gaitasun fisiko eta psikikoak lantzea, eta bakardade egoerak saihestea, besteak beste. Bi talde eratzeko asmoa dago; bata Lagun Lekun eta bestea Pake Lekun, eta talde bakoitzak bi saio izango ditu astero. Esku-hartze psikosozialean aditua den Lahar Elkargoak eskainiko du zerbitzua, eta bertako koordinatzailea den Iñaki Aragonek eman digu zerbitzu berri honen inguruko informazioa. Parte hartzeko interesa duten herritarrek udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena.

Zer da eta nondik nora sortzen da Eguneko Arreta Zerbitzua?

Eguneko zerbitzu bat da eta 65 urtetik gorako herritarrei zuzenduta dago; menpekotasun arin bat (fisikoa edo psikikoa) izan arren, bizimodu autonomoa egiteko gai diren

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Haziendarekin
- Informazioa
- Trafikorekin
- Salmenta
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behe • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

pertsoneri, edota komunitatean integratzeko zailtasunak dituzten gizon-emakumeei zuzendua.

Euskadiko Gizarte Zerbitzuen Legearen arabera, tokian tokiko udalen ardura da era honetako zerbitzuak eskaintzea, eta kasu honetan Oñatiko udalak gure elkartea (Lahar Elkargoa) kontratatu du zerbitzua emateko.

Zein da zerbitzuaren helburua?

Adineko pertsoneri tarte bat eta leku bat eskaintzea beraien gaitasunak estimulatzeke, bai fisikoak, bai kognitiboak, eta baita harreman mailakoak ere. Azken batean, adinarekin batera agertu ohi diren nahasmenduen eboluzioa edo garapena ahal den neurrian atzeratzea da helburua.

Gaitasun fisiko eta kognitiboak ahalik eta luzaroen mantentzea, eta adineko



IÑAKI ARAGON

Lahar Elkargoko
koordinatzailea

« Zerbitzu berri honen helburua da adineko pertsoneri tarte bat eta leku bat eskaintzea beraien gaitasunak estimulatzeke, bai fisikoak, bai kognitiboak eta baita harreman mailakoak ere »

« Askotariko dinamikak egiten dira, baina garbi edukita, beti ere, aktibitate dibertigarriak eta erabiltzaileen gustukoak izan behar dutela »

pertsonen isolamendu edo bakardade egoerak ekiditea da xedea. Azken helburua pertsona horien bizi-kalitatea eta ongizatea ahalik eta luzaroen mantentzea da.

Nori zuzenduta dago?

65 urtetik gorako herritar autonomoei; hau da, ezintasun arinen bat izan arren (menpekotasunen baremoko 1. maila, gehienez) beraien

kabuz moldatzeko gai diren pertsoneri dago zuzenduta.

Adibidez, bakarrik bizi diren edo, senideren batekin bizi arren, eguneko ordu asko bakardadean egoten diren eta behar besteko estimulaziorik ez duten gizon eta emakumeentzako interesgarria da zerbitzua; deskuidu txikiak edukitzen hasi direnentzat, edo mugimenduetan baldartasun zantzuak erakusten hasi diren pertsonentzat.

Zenbat saio egingo dituzte astean?

Bi talde eratu ditugu; bat Pake Lekun, eta bestea Lagun Lekun, eta talde bakoitzak bi orduko bina saio egingo ditu astean. Lagun Lekuko saioak astelehen eta asteazkenean izango dira, eta Pake Lekukoak astearte eta ostegunetan, beti ere goizez, 10:00etatik 12:00etara.

(Hurrengo orrian jarraitzen du)



AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Garbiketak
Irrati-uhinen maiztasuna
Liftinga + betileak tintatzea

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

Gorputz birmoldatzailea
Irrati-uhinen maiztasuna
Presoterapia infragorriekin
Elektroestimulazioa

DEPILAZIOAK

Trionda diodozko laserra
Argizaria / Roll-on

MASAJEAK

 Bidebarrieta Kalea 11 behea, Oñati

 688690141

 xarmaestetika1@gmail.com

 xarma_estetika



Nolakoa da saioen dinamika?

Hasi berria da zerbitzua eta, beraz, aurreneko saio haue-
tan talde-dinamikak egiten ari
gara, partaideek elkar ezagu-
tzeko, monitorea ezagutzeko
eta, azken batean, konfiantza
giroa sortzeko taldekideen
artean, hori funtsezkoa baita
taldeak egoki funtzionatzeko.

Hortik aurrera, gaitasun
kognitiboak (arrazoiketa,
memoria, kalkulua...) estimu-
latzeko ariketa ezberdinak
egiten dira. Ariketa errazak
izaten dira, taldekideen ezau-
garri, behar eta gaitasunera
egokituta.

Normalean, aktibitate fisi-
koren bat ere egiten da; ari-
keta errazak izaten dira, pilota
bigunak eta antzeko materiala
erabiliz. Gorputz-atal eta arti-
kulazio ezberdinak mugitzea
da helburua. Mahai-jokoak
ere egiten dira, gogo-pizgarri
gisa.

Askotariko dinamikak eta
ariketak egiten dira, baina
garbi edukita, beti ere, aktibi-
tate dibertigarriak, atseginak
eta erabiltzaileen gustukoak
izan behar dutela, eta gaita-
sunen bat (fisikoa, kogniti-
boa...) lantzeko balio behar
dutela.

Guk plangintza bat egiten
dugu, eta taldekideek dituzten
ezaugarrien arabera dina-
mikak antolatzen ditugu. Per-
sona bakoitzaren jarraipena
egiten dugu eta, aldiaren behin,
taldekideen garapenaren eba-
luazioa ere egiten dugu.

Zenbateko taldeak izango dira?

Gutxienez 3 pertsonakoak,



*« Hasieran ez da erraza izaten adineko
pertsonak animatzea, baina, poliki poliki,
zerbitzua eta bertan dabilen jendea ezagutu
ahala, gehienak oso gustura etortzen
dira eta taldekideen artean sortzen den
harreman giroa oso polita izaten da »*

BI TALDE ETA ASTEAN BINA SAIO• **LAGUN LEKU**-ko TALDEA

Astelehen eta asteazkenetan, 10:00 - 12:00

• **PAKE LEKU**-ko TALDEA

Astearte eta ostegunetan, 10:00 - 12:00

• **IZEN-EMATEA**

Eguneko Arreta Zerbitzuan parte hartu nahi dutenek
udaleko Gizarte Zerbitzuetan eman behar dute izena:

943 03 77 00 / angizatea@onati.eus

hortik behera ezin baita talde-
dinamika egokirik sortu. Eta,
gehienez, 12 lagun egongo
dira talde bakoitzean; jende
gehiagorekin oso zaila da be-
har bezalako arreta eskaini-
tzea taldekideei.

Non eman behar da izena?

Zerbitzu honen inguruko in-
teresa duten herritarrek, edo
informazio gehiago nahi du-
tenek, udaleko Gizarte Zerbi-
tzueta jo behar dute. Bertan

azalduko diete zer den zerbit-
zua, zertarako den, zer egiten
den, eta ea dagokion ala ez,
pertsona horren ezaugarrien
arabera.

Kuota txiki bat ordaindu be-
harko da zerbitzuaren truke,
erabiltzailearen diru sarreraren
arabera (5€ eta 60€ ar-
tean).

Garrantzitsua da esatea,
zerbitzu hau ez dela denbora
pasa hutsa, eta gutxieneko
konpromiso maila eskatzen

duela; hau da, noizean be-
hin huts egiten bada, ez da
ezer gertatzen, baina izena
ematen duenak saioetara
etortzeko konpromisoa hartu
behar du, horrela taldekideen
arteko harremana eta konpli-
zitate maila sendotzen baita,
eta hori oso lagungarria da
helburuak lortzeko.

**Beste herriren baten ema-
ten al duzue honelako zer-
bitzurik? Nolakoa izaten da
erantzuna?**

Bai, Errenterian hasi ginen
era honetako zerbitzua ema-
ten eta, gaur egun Urnietan,
Azkoitin, Azpeitin, Usurbilen
eta beste herri batzuetan ere
ari gara lanean.

Esperientziak erakutsi
digu hasieran ez dela erraza
izaten jende nagusia anima-
tzea; kosta egiten zaie etxetik
irtetea. Baina, poliki poliki,
zerbitzua eta jendea ezagutu
ahala, gehienak oso gustura
etortzen dira, eta ez okurritu
gero zerbitzua kentzea!

Argi utzi nahi nuke, hau
aktibitate atsegin bat dela eta
partaideak gustura egon be-
har direla, bestela ez du balio
helburuak lortzeko. Norma-
lean oso giro ona egoten da
taldean, eta taldekideen ar-
tean sortzen den harremana,
konfiantza eta babes giroa
oso aberasgarria izaten da,
pozik sentiarazten dituelako.

Pertsona asko ezagutzen
ditut, zerbitzu honetan elkar
ezagutu eta, ondoren, kafe
bat hartzera joaten direnak,
edo paseo bat ematera, eta
baita lmsersoko bidaietara
ere. Eta hori oso positiboa
eta pozgarria da beraientzat. ■

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Isabel
Luor



Marijo
Mendizabal



Itziar
Itziar optika



1 "Bezero batek galtzak eskatu
zizkidan eta nik praken ordeztu,
galtzerdiak atera nizkion"



2 "Mendian ibiltzea oso gustuko
dut; bai neguan, eta baita
udaran ere"



3 "Itasertzean pasioan egitea
maite dut. Kilometroak egin
ditzaket aspertu gabe"

Jolastu, lotu
eta dendariak
ezagutu

Bete itzazu alboko
hutsuneak.
Erantzun zuzenak,
hilean zehar publikatuko
ditugu sare sozialetan.

1 ☐ 2 ☐ 3 ☐



JON ODRIOZOLA Parisko podiumera igo zen

« Tourra baliatu beharko genuke oinarriko euskal txirrindularitzari bultzada handiagoa emateko »

Jon Odriozolak lau Tour egin zituen txirrindulari gisa, eta Parisko podiumera ere igo zen 1999an, taldekako sailkapena irabazita Banestorekin. Zuzendari lanetan beste Tour bat egin zuen, Euskaltel-Euskadirekin.

Zer da zuretzat Frantziako Tourra?

Txirrindulari lasterketarik inportanteena, askogatik. Nire kasuan, gainera, Banesto taldearekin aritu nintzen Tourrean, Indurainen ondorengo urteak ziren, eta Tourra zen gure urteko helburu nagusia eta ia bakarra. Zulle eta Olanori Tourra irabazten laguntzea zen gure egiteko nagusia.

Parisko podiumera igotzea ere lortu zenuen.

Bai. Taldekako sailkapena garrantzitsua zen eta guk gogor borrokatzen genuen. Espainiako Itzulian askotan irabazi genuen, eta Parisko podiumera igotzea ere oso polita izan zen talde-lanean aritzen zen ni bezalako txirrindulari batentzat. Aitortza moduko bat gure lanari. Oroitzapen oso polita daukat.

Zer esan nahi du Tourra Euskal Herriatik abiatzeak?

Bi alderdi bereiziko nituzke. Alde batetik, Tourra hona ekartzea gauza handia da, izugarria. Txirrinduzale gisa, pozgarria. Baina, horrekin batera, uste dut ahalegin handiagoa egin beharko litzatekeela baseko euskal txirrindularitzari laguntzeko. Hor gatatuko den dirutzaren zati bat harrobiari bultzada bat ematera bideratu beharko litzateke, federazioen bidez. Hori botatzen dut faltan. Hori, eta euskal talde bat bertan egotea.

Gogoratu behar da, gainera, Tourra Euskal Herrira etortzearen lehen hazia zuk zeuk erein zenuela, ezta?

Bai, hala da. Eusko Jaurilaritzako kirol zuzendaria zen Jon Redondoren eskariz hainbat bilera egin nituen Christian Prudhomme eta Tourreko zuzendaritzako beste hainbat kiderekin Parisen, Madrilan.... Oso gustora egin nuen lan hori. Niretzat oso interesgarria zen; Murias taldearekin lan polita egiten ari ginen eta Tourrean egoteko aukera genuen. Gainera, euskal txirrinduzaleen artean Euskaltelen garaiko ilusioa berreskuratzeke aukera ikusten nuen eta, bestalde, nik oso garbi neukan Tourra ekartzeak oinarriko euskal txirrindularitza sendotzeko balio behar zuela. Hori guzti hori mahai gainean egon zen. Ni pozik nago egindako lanarekin, nahiz eta faltan botatzen dudan baseko euskal txirrindularitzari laguntzeko ahalegin handiagoa.

Uztailaren 14 igaroko da Tourra



14:00ak aldera iritsiko da tropela Oñatira. Ordu hori baino **bost-sei ordu lehenago**

errepidea guztiz itxita geratuko da. Ezingo da Oñatitik irten, ezta sartu ere.

Uztailaren 2an, igandea, Oñatitik pasatuko da Frantziako Tourra. Euskal Herrian egingo dituen hiru etapetan bigarrena izango da, Gasteizen abiatu eta Donostian amaituko dena. Legutiotik Aramaiora jaitsita sartuko da Debagoienean tropela, eta Arrasatetik igaro ondoren iritsiko da Oñatira.

OÑATIKO IBILBIDEA

San Prudentzio-Elorregitik sartuko dira txirrindulariak Oñatin eta Fanderiako errotondan ezkerrera biratu eta Ulma Architectural (Polimero) enpresa eta suhilatzaileen parke aurretik igaroko dira. Zubillaga auzoa erdigunetik gurutzatuko du tropelak, eta Fagor Industrialeko biribilgunean GI-2630 errepidea hartuko dute txirrindulariek, Oñatiko saihebidetik Jaumendiko errotondara iritsi arte. Handik Roke Azkuneruntz jaitsiko dira, Aita Lizarralde kaletik Bidaurretako errotondara, eta Lazarraga kalean gora joango da tropela Olabarrieta eta Udana alderuntz.

ERREPIDE ETA TRAFIKO MOZKETAK

Tropela 14:00ak aldera igaroko da Oñatitik, minutuak gora minutuak behera, txirrindularien abiaduraren arabera. Bi ordu lehenago, 12:00ak aldera, karabana publizitarioa pasatuko da.

Eta horrek guzti horrek eragina izango du trafikoan. Oraindik ezin dugu esan zehatz mehatz zein ordutan itxiko den errepidea eta zenbat denboran. Ekainaren erdialdera jakinaraziko da ordutegi zehatza, baina aurreratu dezakegu tropela Oñatira iritsi baino bost-sei ordu lehenago errepidea guztiz itxita geratuko dela, eta ezingo dela Oñatitik irten, ezta bertara sartu ere.



Euskal Herriko
Tourreko etapei
buruzko informazioa

ren 2an urra Oñatitik

Eta tropela igaro ostean ere, denboratxo bat beharko da errepidean ipiniko diren babes elementu guztiak erretiratu eta trafikoa normaltasunera bueltatu bitartean. Autobusik ere ez da ibiliko. Dena den, larrialdi plan bat prest egongo da, egun horretan gerta litezkeen urgentzia kasuetan erantzun ahal izateko.

IBILBIDEKO APARKALEKUAK LIBRE

Gogoratu, baita ere, Tourrak Oñatin egingo duen ibil-bidearen alde bietan dauden aparkaleku guztiak libre egon beharko direla aurreko eguneko 20:00etarako.



» **Bigarren etapa.** Gasteizen abiatu eta Donostian amaituko dena, igaroko da Oñatitik. Arrasatetik etorriko da tropela eta Udanara bidean, eguerdiko 14:00ak aldera igaroko da Oñatitik.

'TOUR LAGUNAK'

» Tourrak Euskal Herrian egingo dituen hiru etapak antolatzen diharduen GRAND DÉPART PAYS BASQUE taldeak TOUR LAGUNAK izeneko errepideetako sortu du, txirrindulariak igaroko diren errepideetako bidegurutzeak zaintzen egongo diren herriar bolondresekin. Oñatiko kasuan 51 puntu dira eta 122 pertsona beharko dira horiek zaintzeko. Beraz, Tour-Lagun izateko prest baldin bazaude eman izena <https://letour.euskadi.eus> webgunean. Informazioa: tourlagunak@euskadi.eus / 625 709 994 · 944 205 309.



MARKEL IRIZAR Sei Tour egin zituen

« Izugarritzko erakusleihoa da Tourra eta aukera ezin hobea izango da euskaldunak zer garen erakusteko »

Markel Irizarrek sei tour egin zituen txirrindulari gisa. Aurten Trek-Segafredo taldeko zuzendari lanetan ariko da Tourrak Euskal Herrian egingo dituen hiru etapetan. Euskal Herriaren berri mundura zabaltzeko aukera paregabea dela uste du.

Zer da zuretzat Frantziako Tourra?

Kirol ekitaldi oso potentea. Futbol denboraldia amaituta, komunikabideen fokuak inoiz baino gehiago jartzen dira txirrindulari proba bati begira, eta horrek egiten du Tourrak oihartzun handia izatea komunikabideetan, zaleengan... Izugarritzko jende pilla mugitzen da Tourraren inguruan; ez dauka konparaziorik ez Giroarekin, ez Vueltarekin.

Zer esan nahi du Tourra Euskal Herritik abiatzeak?

Alde batetik, eztabaidagarria izan daiteke Tourra ekartzeko gastatuko den dirutza, asko den ala ez, egokia den ala ez... Baina, bestalde, txirrinduzale eta euskaldun moduan uste dut izugarritzko aukera dela. Tourra erakusleihoa handi bat da eta aukera ezin hobea izango dugu euskaldunok zer garen eta non gauden munduari erakusteko. Gogoan dut, garai batean, komertzial lanetan aritzen zen lagun batek esaten zidala, atzerriko leku askotan Euskal Herria lotzen zutela Euskaltelen marea laranjarekin. Hortik atera kontuak. Halako ikuskizun batek munduan kokatzen zaitu. Jai handi bat izango da eta, aldi berean, Euskal Herria zer den erakusteko aukera paregabea. Nire ustez oso ona izango da Euskal Herriarentzat.

Animatu egin beharko dugu jendea kalera irtetera.

Uste dut animatu barik ere denok irtengo garela kalera. Euskaldunak oso txirrinduzaleak gara eta aukera polita da Tourra bezalako ikuskizun bat etxetik bertatik ikusi ahal izatea bere karabana eta muntaia guztiarekin. Espero dut eguraldiak laguntzea, Euskal Herriko inguru ederrak egoki ikus daitezen, eta jai handi bat izatea. Jendeari eskatuko nioke gizalegez jokatzeko, txirrindulari guztiak animatuz. Ea irudi polita ematen dugun munduaren aurrean.

Zu zeu zuzendari lanetan ariko zara?

Bai, normalean talde bakoitzak hiru kotxe eramaten ditu, eta, seguruenez, hirugarrenean joango naiz, tropelaren aurretik. Euskal Herriko hiru etapak egingo ditut, Baionaraino. Gero beste egutegi bat daukat.

GR-289

HARTZAREN URRATSA



Informazio gehiago:

www.gipuzkoanatura.euswww.turismodebagoiena.eus

> Debagoienari bira ematen dion ibilbidea diseinatu dute Gipuzkoako Mendi Federazioak eta Mankomunitateko turismo sailak elkarlanean

Puntaik Punta jaialdiaren baitan, apirilaren 22an aurkeztu zuten Oñatiko turismo bulegoan Gipuzkoako Mendi Federazioak eta Debagoieneko Turismo sailak elkarlanean diseinatu duten **GR 289 - HARTZAREN URRATSA** ibilbidea. Debagoiena eskualdeari bira ematen dio ibilbideak, 97 kilometro ditu guztira, eta bost etapatan egiteko pentsatua dago.

'Hartzaren Urratsa' deitu diote bideari, hain zuzen ere, hartzak gure mendi eta basoetan bizi izan zirela gogoratzeko, Arrikruz eta Leizetxikiko kobetan aurkitu diren arrastoek erakusten duten moduan. Antzuolan hil omen zuten bailarako azken hartza 1867an, eta hainbat baserri eta leku-izenetan ere (Artzanburu...) agertzen da hartzaren urratsa. Iragandako denboraren metafora moduko bat dela esan daiteke.

Xendazaletasuna sustatzeaz gain, Debagoiena eskualdeko natura, ondarea eta historia ezagutzeko aukera bikaina eskaintzen du ibilbide berriak, iragana eta oraina lotuz, gure arbasoek egin ohi zuten bezala: oinez. Ibilbidean zehar hainbat museo eta interpretazio gune (Gatz museoa, Zubiare labea, Laboratorium, Arantzazuko parketxea, Arrikruz...) bisitatzeko aukera dago. Interesgarria bai kanpotik bisitatuko gaituztenentzat eta baita eskualdeko bizilagunontzat ere.

97 KILOMETRO, 8 UDALERRI, 5 ETAPA



Distantzia: 20,2km Iraupena: 6h 15' Malda: +1116m / -879m



Distantzia: 14,5km Iraupena: 5h 05' Malda: +853m / -879m



Distantzia: 20,2 km Iraupena: 7h 50' Malda: +1201m / -1365m



Distantzia: 22,8 km Iraupena: 7h 35' Malda: +1226m / -1323m

ETAPEN DESKRIBAPENA

1. ETAPA:

Bergarako herrigunea zeharkatu eta Goiazura jotzen du bideak. Angiozarko Partaitia auzuneko baserrietatik igaro eta Asentzio ermitara helduko gara. Intxorta mendiaren azpitik, Bizkaia eta Gipuzkoako muga-lerrotik Kanpanzar mendatera iritsiko gara, Udalaizen magaletik Udala auzora, Arrasatera jaisteko.

2. ETAPA:

Arrasatetik San Andres auzora abiatu, autopista azpitik pasa eta Bedoñara igoko gara. Behera jarraitu, Larrino auzotik igaro eta erraz iritsiko gara Urkuluko urtegira. Aretxabaletako Areantza auzoa Mendiolarekin lotu eta Eskoriatzara iritsiko gara. Azkenik, Atxorrotzerko tontorrera igo, eta Leintz-Gatzaga jaitsiko gara.

3. ETAPA:

Aizkorri-Aratz parkean barneratuko gara. Gatzagan abiatu eta gatz museotik pasa ondoren Dorletako santutegira igoko gara. Makatza gaineraino igo behar da, pagadi artean. Handik Leizargarateko lepora iritsi eta Degurixako zabalguneraino jarraitu. Andarto mendiaren azpitik igaro eta Ugastegira iristean Araotzera jaitsiko gara.

4. ETAPA:

Araotzetik Jaturabeko urtegira joko dugu errepide bazterretik, Arrikrutzeko kobaren sarreraraino. Handik, baserri bideetatik Arantzazuko santutegira iritsiko gara. Hor hasiko da aldapa latzena, Biozkorniako leporaino. Hortik aurrera dena beherantz da, Kataberaraino lehenik, eta Murgia auzoraino ondoren, Oñatin amaitzeko.

5. ETAPA:

Oñatitik ekin eta Larraña auzoan gora Arranoaitzeko tontorrera igoko gara. Handik aurrera desnibela galduz joango gara, poliki poliki. Deskargako lepora jaitsi eta Vascongados trenbide zaharraren bidea jarraituz Antzuolako Uzarraga auzora iritsiko gara. Antxinako bide horri jarraituz Bergarako herrigunera helduko gara.

(Hurrengo orrian jarraitzen du)



Deskargatu ibilbide
osoa hemen

URDIN ELORTZA GMF SENDERISMO TEKNIKARIA

«Kanpotarrentzat ez ezik, bertakoentzat ere oso interesgarria da ibilbidea. Jende askok ez ditu ezagutzen bailarako herriak lotzen dituzten ibilbide zaharrak»

> Gipuzkoako Mendi Federazioko senderismo teknikaria da Urdin Elortza oñatiarra, eta **GR 289- Hartzaren Urratsa** ibilbidearen diseinu eta prestaketa lanetan jardun du, Debagoieneko mankomunitateko turismo sailarekin elkarlanean



Urdinek koordinatu ditu Hartzaren Urratsa bidea diseinatzeko lanak

Nondik nora sortu da 'GR 289 - Hartzaren Urratsa' bidea sortzeko egitasmoa?

Debagoieneko herri bakoitzak bere ibilbide saretxoa dauka, baina mankomunitateak bazeukan egarri bat, bide horiek elkartuko zituen ibilbide bat sortzeko. Mendi federazioan ere begi onez ikusten genuen eta, halaxe, poliki poliki joan da proiektua mamituz.

97 kilometro ditu ibilbideak eta bost etapatan antolatu duzue. Zer esango zenuke etapei buruz?

Hein handi batean bailarako herriak lotzen dituzten bide zaharrak erabiliz diseinatu dugu ibilbidea, eta uste dut etapa guztiek dutela beraien erakargarritasuna.

Gatzaga-Araotz eta Araotz-Oñati etapak dira menditsuenak. Gainerako hiruretan landa auzoetan barrena ibiliko gara gehienbat, baina guztiek dute beren xarma. Adibidez, niri asko gustatu zait Oñati

eta Bergara artekoa; Des-kargaraino ezagutzen nuen, baina hortik Antzuolara arteko trenbide zaharra oso polita iruditu zait, eroso, samurra... Oso etapa atsegina da; Arranoaitzen hartzen da gaina, eta hortik Bergararainokoa maldan behera da dena.

Etapak ez dira motzak —20 bat kilometro dituzte—, baina eroso egitekoak dira, erdi bidean atsedenditxo bat hartu eta ogitarteko bat janda, arazo barik egin daitezke.

Seinaleztatze lanak amaitu dituzue ala zerbait falta da?

Pintura marka guztiak eginda daude, balizak ere ipinita

daude, eta informazio panelak ere bai, herri bakoitzean bana eta Araotzen beste bat.

Ibilbidean zehar dauden posteak ere ipinita daude, baina informazioa ematen duten geziak jostea falta da zenbait lekutan. Horretan ari gara eta uda parterako dena amaituta egongo dela uste dut. Dena den, ibilbidean track-a deskargatuta eta pintura markak jarraituta, arazo barik egin daitezke bost etapak.

Gustura azken emaitzarekin?

Gustura nago, bai, baina horrek ez du esan nahi aurre-

rago hobekuntzak egin ezin direnik. Badaukagu, adibidez, ibilbideko posteetan toponimo edo leku-izenak eta QR-ak ipintzeko asmoa, track-ak deskargatu ahal izateko.

Trazatuan aldetaren bat egiteko aukera ere ez dugu baztertzeko. Adibidez, Araotz eta Oñati arteko etapako zati bat errepidetik doa, ez genduelako Aitzulotik pasatzerik nahi (bestela ere nahikoa masifikatuta dagoelako) eta, gainera, Arrikrutzetik igaro behar zelako. Beraz, ikusiko dugu; bizirik dauden eta bizitza propioa duten proiektuak dira hauek eta ikusiko dugu nola doan garatuz.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

ETAPAK

«Gatzaga-Araotz eta Araotz-Oñati etapak dira menditsuenak. Beste hirurak baserri auzoetatik doaz gehienbat, eta denek dute beraien xarma. Ez dira etapa motzak, baina eroso egitekoak dira»

MANTENTZE LANAK

«Lau urtean behin berritzen da ibilbideen homologazioa. Urtean 500 kilometro bide ikuskatzen ditugu eta, gero, bidearen jabe edo promotoreari (Foru Aldundia edo Udalak) dagokio mantentze lanak egitea»

Non deskargatu daiteke ibilbidearen track-a?

Herri bakoitzean ipini dugun paneletako QRa eskaneatuz. Bestela, gipuzkoanatura.eus eta turismodebagoiena.eus atarietan.

Nori dago zuzenduta GR hau?

Nik uste dut kanpotarrentzat oso interesgarria dela. Gure bailarako baserri auzoak eta mendi inguruak ikusgarriak dira. Gu ohitura gaude, baina bisitariak harrituta geratzen dira.

Baina kanpotarrentzat ez ezik, bertako jendearentzat ere oso egokia dela uste dut. Izan ere, bertako jende askok ez ditu bide horiek ezagutzen. Zenbat jende joaten da Aurrekomendira Oñatin? Denok Arantzazu eta Urbia aldera, eta Arranoaitz ingurua ia hutsik. Badakigu inguru horretan pinua dagoela, baina bertan dauden panoramika eta ikuspegiak zoragarriak dira.

Gainera, Hartzaren Urratsa ibilbideko etapa bakoitzaren



Ibilbideko seinale, marka eta panelak

Berde koloreko geziak eta zuri-gorri koloreko markak eta balizak aurkituko ditugu GR 289-Hartzaren Urratsa ibilbidean zehar. Gainera, herri bakoitzean, eskubikoa bezalako panel bana jarri dute. Besteak beste, etapa bakoitzaren track-a deskargatzeko QRa aurkituko dugu bertan. Oñatikoa San Martin egoitza parean dago.



Homologatutako 2.100 kilometro ibilbide

Gipuzkoa osoan homologatutako 2.100 kilometro ibilbide daude egun. Horietatik 725 km. GRak (ibilbide luzeak) dira, 600 km. PRak (ibilbide motzak) eta gaineakoak udalerrri mailako ibilbideak. www.gipuzkoanatura.eus webgunean dago ibilbideen inguruko informazio zehatza.



Toponimia eta segurtasuna

Homologatutako ibilbideetan ondokoa bezalako plakak ipintzen hasi da Gipuzkoako mendi federazioa. Plaka bakoitzean toponimo edo leku-izena eta kode bat agertzen da eta helburu bikoitza du ekimenak: batetik, toponimia berreskuratu edo balioan jartzea, eta, bestetik, segurtasuna areagotzea. SOS Deiak-en kode horietako bakoitzaren koordinadak daukate eta, beraz, arazoren bat dagoenean kodearen berri eman eta SOS Deiak-en badakite puntu hori non dagoen zehatz mehatz.



amaieran autobusa daukagu; Oñatik Bergarara joaten bagara, autobusez bueltatzeko aukera dugu eta, beraz, oso eroso da. Salbuespen bakarra Araotz da; kasu honetan igande eta jai egunetan soilik dago autobus zerbitzua Arrikutzen, edo Arantzazun.

Honenbestez, Gipuzkoan homologatutako 2.100 km. ibilbide daude gaur egun. Asko da, gutxi da?

Asko edo gutxi baino, kontua da daudenak txukun mantentzea. Gaur egun, Gipuzkoan ditugun ibilbideen %90 ondo daude, baina badaude behar bezala mantentzen ez diren bide batzuk, eta horrek itxura txarra ematen du. Gainera, segurtasun kontua ere bada.

Guk promotore edo jabeei galdetu ohi diegu ibilbidea mantendu nahi duten ala ez, eta ez badaukate interesik, ezabatu egiten ditugu. Kontua da, udal txiki batzuek ez daukatela diru baliabiderik mantentze lan horiek egiteko, eta hor sortzen dira arazoak.

'Hartzaren Urratsa' bideari dagokionez, mantenu lanak egiteko hitzarmena sinatu duzue Debagoieneko mankomunitatearekin.

Beti egiten dugu horrela. Homologatutako ibilbideetan derrigorrezkoa da mantentzen kontratua sinatzea eta lau urtean behin berritzen da homologazioa. Guk ibilbide bakoitzaren gaineko txostena egiten dugu, eta antzemandako akatsen berri ematen diogu promotoreari. Gero, beraien ardura da gure txostenean jasotako lanak egitea.

Urtean 500 bat kilometro bide ikuskatzen ditugu, bai aldundiaren sarekoak eta baita udalenak ere. Aldundiak azkar egin ohi ditu konponketak, baina udalen kasuan zailagoa izaten da eta, tamalez, batzuetan, nahi baino denbora gehiago igarotzen da konponketak egiterako. ■

2,16 milioi euroko laguntza berria jasoko du Oñatiko Udalak Next Generation funtsetik

3 urteko epea izango du Udalak proiektuok garatzeko

Oñatiko udalak laguntza ekonomiko inportantea jasoko du esku artean dituen bost proiektu garatzeko. Jasangarritasun Turistikoko Planak sustatzeko Europar Batasunak egindako 2023ko ezohiko deialdiaren baitan 19,45 milioi euro jasoko dituzte EAEko herri edo eskualde ezberdinek, eta horietatik 2,16 milioi Oñatiko udalak aurkeztutako bost proiektutara bideratuko dira.

Oñatira etorriko den dirulaguntza handiena (769.000 euro) Usakorako bide segurtasuna berma dadin Torreauroko zubitik bidegorria egin eta bertako ingurune naturala hobetzeko izango da. Horrez gain, Emakumeen Etxea eraberritzeko 600.000 euro jasoko dira, plaza ondoko azoka eta inguruak hobetzeko 300.000 euro, herrigunean disuasio-aparkalekuak egiteko 200.000 euro, eta Arantzazuko eta Araozko aparkalekuen kudeaketa automatizaturako 126.000 euro.

BIGARREN ALDIA

Gogoratu, bigarren aldia dela Oñatiko Udalak Next Generation funtsetik eratorritako laguntza jasotzen duela. Aurretik beste 532.000 euro jaso zituen natur eskolaren birgaitze lanetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko egindako ahaleginagatik.

Udala ahalegin berezia egiten ari da Next Generation funtsei begira, jakinik bat datozela iraunkortasunaren alde hartu duen bidea eta Europar Batasunak dituen dirulaguntza hauen helburuak. Ildo horretan, Next Generation funtsetik jasotakoa, egindako bidearen aitortza modura ulertzen du Oñatiko Udalak.



Javier Hurtaso turismo kontseilaria eta dirulaguntzak jasoko dituzten zenbait udalerrietako alkateak, tartean Izaro Elorza

Laguntza jasoko duten EGITASMOAK

769.000 €

Torreauro eta Usako artean bidegorria egitea eta bertako ingurune naturala hobetzea

600.000 €

Emakumeen Etxearen eraberritzea

300.000 €

Plaza ondoko azoka eta inguruak hobetzea

200.000 €

Herrigunean disuasio-aparkalekua egokitzea

126.000 €

Arantzazu eta Araozko aparkalekuen kudeaketa automatizatua

'Auzotasuna' atal gehigarriko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

'Auzotasuna' deritzon programaren baitan 113.000 euro banatuko ditu aurten udalak herriko 16 auzoen artean, errolatutako auzotarren eta baserri kopuruaren arabera. Baina, horrez gain, diru-atal gehigarri bat ere badu Udalak, bere eskumenekoak diren lanak edo auzoak gaindiko herri onura izan dezaketen auzolanak sustatzeko. Aurten 22.000 euroko diru partida dago horretarako eta hiru irizpideren arabera baloratuko dira eskaerak: herri onuraren irismena, auzoaren ko-finantzazio maila eta auzo-lana. Ekainaren 14ra arteko epea dago eskaerak aurkezteko.



Ingeleseko Akademia
Listening Speaking Reading Writing


**2023/2024 ikasturterako
izen ematea zabalik!**

Maite Aiastui Kortabarria
Irakaslea

Arantzazuko Ama, 3 behea
943 53 36 57
20560 OÑATI (Gipuzkoa)
4sgoiena@gmail.com

(4 URTETIK AURRERA)

www.4sgoiena.com



1 eta 2
zenbakidun
etxe atarien
inguruak
eta autobus
geltokirako
pasabidea
eraberrituko
dituzte

Olakuako 3. Areako irisgarritasuna hobetzeko lanak ekainaren 5ean hasiko dira

Olakuako 1A-1B-1C eta 2A-2B etxe inguruetako oinezkoen bideak eraberrituko dira. Lanek 294 mila euroko aurrekontua dute eta 5 hilabeteko exekuzio epea.

Olakua auzoko urbanizazioa eraberritu eta irisgarritasuna hobetzeko proiektuarekin aurrera jarraitzen du udalak eta, oraingo honetan, 3. Area bezala izendatutako gunean egingo dira lanak. Goiko planoak erakusten duen moduan 1A-1B-1C eta 2A-2B etxe-atarien inguruko eremua hartzen du 3. Areak, eta azken orduko atzerapenik ez bada, ekainaren 5eko astean hasiko dira berritze lanak.

A2B *Arquitectos* enpresak idatzitako proiektuaren arabera, eremu horretan dauden oinezkoen ibilbideak, zebra-bideak eta mugikortasun urriko pertsonentzako aparkalekuak berrituko dituzte, irisgarritasun arauetara egokitzeko edo, araua guztiz bete ezin den kasuetan, gaur egungo egoera nabarmen hobetzeko. Goiko irudiak erakusten duen moduan, 2A eta 2B etxe-blokeen aurrealdeko espaloia zabaldu egingo da,

igogailuen kaxek eten egiten baitute oinezkoen bidea, eta plataforma bakarra eratuko da, galtzada eta espaloiak altura berean dituenak. Bertan galduko diren aparkalekuak ondoko berdegunean egokituko dira. Horrez gain, zoladurak eta eserlekuak berrituko dituzte eta zintarrria ipiniko da parterre edo berdegunean bueltan, ikusmen urria duten pertsonen orientazioa errazteko. Autobus geltokirako pasabidea ere egokituko da.

Lan hauek baliatuz, eremu horretako saneamendu eta ur hornidura sareak berrituko dira. Lan hauen kostua, 18.392€ (BEZ gabe) Gipuzkoako Urak enpresak hartuko du bere gain.

Olakuako 3. Areako urbanizazioa berritzeko lanak Morga enpresak egingo ditu 243.723€ko (BEZ gabe) aurrekontuarekin, eta bost hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.

Urte askotan zuekin

☎ 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte



MAPFRE
OÑATI

Ekainaren 10ean irekiko da bainu denboraldia Usakon

► Sorosle zerbitzua egongo da arratsaldetan

Ekainaren 10ean irekiko da ofizialki bainu denboraldia Usakon, eta irailaren 10era bitartean Udalak sorosle zerbitzua eskainiko du bertan, egunero, arratsalde, 15:00etatik 21:00etara (16:00etatik 20:00etara bi sorosle egongo dira). Ohi bezala, Usakoko berdegunearen mantenuaz arduratuko da Udala, eta dutxa nahiz komun zerbitzua ere egongo da bertan. Gainera, azken urteetan bezala aparkalekua ere egokituko da Zañartun.

URAREN KALITATE MAILA

Iazko denboraldian egindako zenbait analisisetan E-Coli bakteriaren metaketa handiak agertu ziren Usakoko uretan, lokalizatu gabeko kutsadura fokuen ondorioz, eta, hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako osasun arduradunen aginduari jarraituz, 'Bainua ez gomendatua' iragarriko du Udalak, uraren kalitatea bainurako 'ez nahikoa' delako. Horregatik, **bainua hartu ondoren dutxa hartzea gomendatzen du Udalak**. Gainera, ekainaren 5ean hasita osasun arduradunek astero egingo dituzte analitikak Usakon, eta emaitzek hala eskatzen badute, bainua debekatu egingo da emaitzak hobetu arte.

UR TXORROTAK

Eltzia aurrealdeko Ur Uhinak parkea ere ekainaren 10ean irekiko da, eta irailaren 10era arte egunero irekiko da (11:00-21:00)



Maiatzaren 24an Buceo Euskadi enpresako bi urpekari egon ziren Usakoko putzua ikuskatzen, eta bainurako arriskutsuak izan zitezkeen elementuak kentzen.



Usakoko ur putzutik ateratako abar eta errametako batzuk

'BERTATIK BERTARA', turistak gure hizkuntzaz gozatzerantz animatzea helburu



UEMArekin (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea) elkarlanean, aurtan ere 'Bertatik Bertara' kanpaina parte hartuko du Oñatiko udalak. Helburua da gure hizkuntza balioan jartzea eta bisitariak animatzea euskaraz gozatzerantz. Horretarako, oinarritzko hiztegi bat duten mahai-gainekoak (goiko irudikoa bezalakoak) banatuko dituzte herriko ostatueta.

SUSTAPEN BIDE BERRIAK

Udako oporraldira begira herriko turismoa sustatzeko promozio bide berriak jorratuko ditu udaleko turismo sailak. Hala, azkenaldian ipar Euskal Herriko eta, oro har, Frantziako bisitariak ugarituz doazela ikusita, bertako zenbait mediotan (*Ongi Etorri*, *Basque Magazine*, eta *Le Guide du Pays Basque*) promozio kanpaina berezia egingo du Udalak. Bestalde, Donostiako eta Gipuzkoako autobusetako pantailetan gure herriari buruzko publizitatea ikusi ahal izango da uda guztian.

Emakumeen Etxearen barne banaketa adosteko saioa

Emakumeen Etxea izango den eraikineko espazioen antolaketa adosteko antolatutako hiru saioetan azkena egingo da ekainaren 21ean, Eltzia 3. solairuan, 18:00etan. Emakume guztiak daude gonbidatuta.



EGUR-LAN
AROTEGIA
LIMABAR S.A.L.
BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
TEL/FAXA: 943 78 14 59 limabarsal@gmail.com
www.egur-lan.es

smk
san miguel kooperatiba
943 781 217
kale barria 8 - 20560 oñati
www.sanmiguel.coop

IRTEERA GIDATUA

FKAINAK 17

Klima Aldaketaren Eragina Pagadietan

Ekainaren 17an Julen Astigarraga geografo eta ekologo oñatiarrak gidatutako irteera egingo da Artaso aldeko pagadietara.

Astigarragak gidatutako ikerlari talde batek baso-ustiaketa modu ezberdinek klima aldaketaren aurrean duten erresilientzia maila aztertu du, Artia mendiko pagadietako laginak hartuta. Otsaileko Ingurumen Jardu-naldien baitan eman zuen azterketa lan horren inguruko hitzaldia. Tama-lez, ordurako programatuta zegoen irteera ezin izan zen egin, eguraldi txarraren ondorioz, eta horixe da ekainaren 17an egingo den irteera.

Goizeko 9:00etan da hitzordua, Enpresagintza fakultate aurrean, kotxez Arantzazura igotzeko. Eguerdiko 13:30ak aldera amaituko da bisita Arantzazuko auzo-etxean.

Oñatiko udalaren webgunean ikus daiteke Astigarragak egindako ikerketa lana.



**Elkar Heziko gela guztiek
zabalik behar dutela
aldarrikatzeko giza katea**

Elkar Hezi ikastetxeko komunitatea osatzen duten ikasle, guraso eta langileek giza katea egin zuten maiatzaren 25ean. Eskuz esku eraman zuten ikastetxeko logoa Arantzazu kaleko eraikinetik Santa Marinakora eta handik Foruen plazara. Aldarrikapena hauxe: Elkar Hezi ezinbesteko eragilea dela herri antzina, euskalduna, solidarioa, inklusiboa, ekologista, feminista... sortzeko. Hezkuntza eredu ezberdinek herria aberasten dutelako. Horrekin batera, elkartasuna eta babesa adierazi nahi izan diete ikasleen onarpen dekretu berria aplikatzeko moduak egoera deserosoa eragin dien familiei.

Bisita gidatuak artxibo historiko probintzialesan

FKAINAK 9



Artxiboen Nazioarteko Eguna ospatzen da ekainaren 9an, eta, horren harira, 4 bisita gidatu antolatu dituzte Oñatiko Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan. Artxiboko egunerokoa erakustea da helburua: gordailuak, lan-aretoa, zaharberritze-tailerra... Goizez bi bisita egingo dira (10:00etan euskaraz / 12:00etan gazteleraz) eta arratsaldez beste bi (16:00etan gazteleraz / 17:30etan euskaraz). Erreserba egin behar da: 943415060 / ahpg-gpah@gipuzkoa.eus.



pepephone

HEMEN NETFLIX SERIETIK DATOR

Zuntza
500Mb

Mugikorra
+ 39GB
metagarriak

5G

+

NETFLIX

42'90
c/hil.
5€ Linea gehigarria



Eta dohaiarik **guztira 100€** bideratzen ditugu 100€-ko gutxienez edozein mugikor + zuntza tarifa kontratatuz

PROMOZIO ESCLUSIBOAK SOILIK HEMEN:

LIZKER INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA

TLF: 943 090 600



BEZ eta oinarriak barne. Aire bidezko Cecotec frijigailuaren opari-promozioa 2023ko ekainaren 1etik 30era, edo stocka amaitu arte, LIZKER Informatika dendan.



ULMA eta OÑATI kontaketa partekatua

62 urteko historia kontatzeko dokumental sorta prestatzen ari da ULMA eta dei egiten die herritarrei, lagungarri izan daitezkeen argazki eta bideoak partekatzeko

ULMA Taldea dokumental sail bat prestatzen ari da bere 62 urteko historia eta Oñatirekin duen harremana kontatzeko asmoz. 1961etik 2021era arteko enpresaren ibilbidea jasoko du eta sei kapitulu izango ditu, hamarkada bakoitzeko bana.

ULMAren une garrantzitsuenak, Oñatin eta eskualdean izandako bilakaera sozial, kultural eta ekonomikoa, eta bi-biek ULMAren

historian izan duten harreman estua azalduko da kontakizun horretan.

Oroimen ariketa bat izango da, beraz; 62 urte geroago ULMAk enpresa erreferente izaten jarraitzen du Oñatin, eta hori hala izateko arrazoiak azalduko dira. Gainera, ULMAren jardunaren ardatz diren balio kooperatiboen garrantzia ere azpimarratu nahi da.

Ikus-entzunezkoa osatzeko

▲
1972ko
ULMAko
bazkideen
argazkia
Arantzazuko
basilikaren
aurrealdean
(Argzk.; ULMA)

ARGAZKIAK ETA BIDEOAK PARTEKATZEKO

Dokumentalerako argazki edo bideoen bat partekatu nahi baduzu, jarri harremanetan: comunicacion@ulma.com edo 670 459 441

informazio bilketa eta ikerketa lan garrantzitsua egiten ari dira ULMA eta, ildo horretan, ahalegin berezia egin nahi dute bideo eta argazki historikoak lortzeko. ULMAren, Oñatiren eta ULMA lan egiten zuten pertsonen argazki edo bideoak lortu nahi dituzte. Beraz, dei egiten zaie ikus-entzunezko materiala duten herritarrei, dokumentalerako partekatu dezaten eskatzeko. ULMAren asmoa da 2023ko Gabonetarako dokumentala amaituta edukitzea.

ULMA

nire aukera da!

ULMA AUKERATZEN DUT

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

Torre Zumeltzegi hotelak herritarrekin batera ospatuko du 10. urteurrena ekainaren 3an



Legazpiko Alaitasuna Errondailak girotuko ditu herriko kaleak

Ekainaren 1ean hamar urte beteko dira Zumeltzegi dorreak ateak ireki zituela hotel eta jatetxe gisa. Urte hauetan zehar bertara hurbildu diren herritar eta bisitarien ongizatea bermatzea izan da bere helburu nagusia, eta horretan jarraitu nahi dute aurrerantzean ere.

Torre Zumeltzegi hotelak eskerrik beroenak eman nahi dizkie urte hauetan dorrera hurbildu diren herritarrei eta, horregatik, ekainaren 3an Legazpiko Alaitasuna Errondaila gonbidatu du herriko kaleak girotzeko. Goiz partean (12:30-14:30) kalez kale ibiliko dira (Kale Zaharra - Foruen plaza - Atzeko Kale /euria bada, udaletxeko arkupetan soilik) eta arratsaldean (16:30-18:30) Torrean.



'AHTRIK EZ!' ASTEA EKAINAK 13-20

Oñatiko 'Astintzen' taldeak 'AHTRIK EZ!' astea antolatu du azpiegitura honen aurkako borrokaren 30. urteurrenaren harira. Ekainaren 13tik 20ra **erakusketa** egongo da kultur etxean (egunero 18:00-20:00). Bertan 30 urteko borrokaren historia errepasatuko da. Bestetik, ekainaren 13an (18:30) **hitzaldia** egongo da leku berean AHTRIK EZ plataformako kideen eskutik, eta ekainaren 20an (18:30) AHT-aren inguruko **dokumentala** emango dute Gaztetxean.



ZUHAITZ HOSTOZABALEKO BASOEN KUDEAKETA AZTERGAI

GEBE, Gipuzkoako baso-jabeen elkarteak antolatuta, zuhaitz hostozabaleko basoen kudeaketaren inguruko jardunaldiak egingo dira Oñatin. Bi saio izango dira. **Ekainaren 7an** hitzaldia egongo da kultur exeko zine aretoan (19:00). Aitor Onaindia (BASOA Fundazioa) eta Eneko Iturbe (Gipuzkoako Baso Elkar-tea) izango dira hizlariak. Gero, uztailaren hasieran, basoen kudeaketaren inguruko saio praktikoa egingo da. Bata zein bestea dohainik izango dira.

JUBILATUEN ASTEA, Ekainaren 12tik 18ra

Pake Leku elkarteak antolatuta, ekainaren 12tik 18ra egingo da herriko jubilatuen astea. Hilaren 12an (18:00) Jesus Millasen hitzaldia (Aldez aurreko borondateak /Voluntades anticipadas) egongo da. Hurrengo egunean Arrikruzeko koba ikustera joango dira. Ekainaren 15ean (17:00)bingo saio berezia eta dantzaldia izango dituzte, eta hilaren 18an ospatuko da Jubilatuen Eguna, ohiko omenaldi, bazkari, dantzaldi eta opari banaketarekin.



Pake Lekuko zuzendaritza talde berria



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net f i



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

40. URTEURRENA ospatzen ari dira Arrano elkartean



Otsailean ekin zioten urteurrena ospatzeari. Ekainerako **'Etxabola Musikala'** eta **bizikleta ibilaldia** antolatu dituzte, eta uztailaren 15ean izango da **Urteurren Eguna**

40 urte betetzen ditu aurten Arrano elkarteak, eta urte osoan luzatuko den egitaraua prestatu dute urteurren borobila ospatzeko. Otsailean urtero egin ohi den Arrano Egunarekin hasi ziren ospakizunak. Ohi bezala, omenaldi ekitaldia egin zieten atzoko, gaurko eta biharko gudariei Arranoaitzen, eta ondoren bazkaria Arrano elkartean.

Martxoan bereziki haurrei zuzendutako ikuskizuna antolatu zuten herriko plazan, Ekain Iburguren (Ekain-Txou) pailazoaren eskutik. Apirilean irteera egin zuten, Iñaki Perurenaren Peru-Harri museoa ikusi eta sagardotegian bazkaltzera, eta maiatzean Mus txapelketa jokatu zen Arrano elkartean bertan.

HURRENGO EKITALDIAK

Ekainerako beste bi ekitaldi iragarri dituzte. Hilaren 17rako 'Etxabola Musikala' antolatu dute, eta bi musika talde (Sukena eta Zaunka) ariko dira Arranoaitzeko etxabolan (12:00). Hilaren 24an mendi-bizikleta ibilaldia egingo da, eta uztailaren 15ean izango da 40. urtemugako ospakizun nagusia, 'Urteurren Eguna', hainbat ekitaldirekin (ikusiko ondoko egitaraua). Udazkenerako ere iragarri dituzte mendi irteera eta ardi-jana, besteak beste.

1983ko uztailaren 28an zabaldu zituen ateak Arrano taberna-elkarteak, ezker abertzalearen ekimenari esker, Kale Barriako atari bat zena herritar askoren etxe bihurtuz. Berrogei urteko ibilbidean zehar hainbat oztopo gainditu behar izan ditu; gogoratu, adibidez, 35/02 auziaren baitan Auzitegi Nazionalak hainbat herriko taberna miatu eta kontuak blokeatzea agindu zuela. Traba guztien gainetik, baina, Arrano elkarteak aurrera egin zuen eta hainbat herritarrek egindako lanak bere fruituak eman ditu. Gaur egun, 125 bazkide ditu Arrano elkarteak, eta orain arte bezala, lanean jarraitzeko asmoa du euskal kultura eta gazte nahiz langileen borroka eta eskubideen alde. Arrano elkarteak herritar guztiak gonbidatzen ditu 40. urteurreneko ekitaldietan parte hartzera.



KAMISETAK SALGAI

Urteurrena ospatzeko kamisetak atera dituzte, kotoi organikoz egindakoak. Arrano tabernan eskura daitezke (17€).

EGITARAUA

► EKAINAK 17

ETXABOLA MUSIKALA



SUKENA (Oñati) eta ZAUNKA (Nafarroa) taldeekin. Ondoren MIKRO IREKIA. Arranoaitz etxabolan (12:00). Taberna eta sukalde zerbitzua egongo da.

► EKAINAK 24

MENDI-BIZIKLETA IBILALDIA

► UZTAILAK 15

URTEURREN EGUNA

13:00 Flamenco ikuskizuna
LA PULGA ETA LAGUNAK
taldearen eskutik



15:00 Bazkaria (txartelak
Arranon salgai)

19:00 DIATOPIA
elektrotzaranga

22:00 DJ ELVIS CAINO Arrano
elkartean

► URRIAK 22

MENDI IRTEERA

► AZAROAK 18
ARDI-JANA

JUANJE MARGOAK
627 818 247



ARKITEKTURA

Baserriak * Teilatuak * Fatxadak * Igogailuak

Bidebarrieta 13. Oñati * tel: 677 31 20 57
amaia@aiarkitektura.com



URTEURRENEKO IRUDIAK

Goian, otsaileko Arrano Egunean Arranoaitzen elkartutako taldea. Ezkerrean, martxoan burutu zen Ekaintxou ikuskizuneko irudia. Behean, apirilean Peru-Harri museora eta sagardotegira egindako irteerako argazkia



ARGAZKI LIBURUA

Urteurrena borobiltzeko, argazki-liburu bat prestatzen ari dira Arrano elkar-
tean. 40 urteko ibilbideko argazkiak (langileak, auzo-lanak, ongi-etorriak, mozerro egunak, kultur ekitaldiak...) eta garai ezberdinetako protagonisten (sortzaileak, tabernariak, auzolanetan aritu zirenak...) testigantzak jasoko dituzte bertan. Dagoeneko hainbat argazki jaso dituzte, baina hasierako urteetako tabernarienak falta zaizkie. Beraz, norbaitek halakoren bat edukiz gero, elkartera eramateko deia luzatu dute.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

ELKAR HEZIKO GELA GUZTIAK GUZTIENTZAT, ZABALIK!

Kepa Aiaitui, ALOÑA Gurasoen Elkartearen izenean, eta Martin Jauregiatz, ELKAR EGIN Langileen Elkartearen izenean

Hezkuntza Sailak matrikulazio-eredu berri bat ezarri du 23/24 ikasturterako. Aldaketa horien helburua besteak beste, eskola-segregazioarekin amaitzea da.

Guztiz bat egiten dugu Hezkuntza Sailak lortu nahi dituen helburuekin: ikasle guztientzat inklusioa, bikaintasun akademikoa zein pertsonala eta euskara ardatz duen hezkuntza-eredua. Horren froga, gure izaera islatzen duen leloa: **Oñati Guztiak**. Hala ere, uste dugu ikasleen onarpen dekretu berria aplikatzeko moduak familiei eraso egiten diela, familia bereko anai-arrebak hainbat ikastetxetan bananduz, eta dagoeneko eskolatuta dauden haurrak beste ikastetxe batzuetara eramanez.

Sortu den egoera konplexu horren aurrean, gure ikastetxetik erantzukizunaren eta zuhurtziaren alde egin dugu, eta, horregatik, zirku mediatikoaren parte ez izateko, egiazkoa, ofiziala eta esanguratsua zen informazioa argitaratzea baino ez genuen erabaki.

Komunikabideetan zaratarik ez ateratzeak ez du esan nahi besoak gurutzatuta geratu garenik, eta ikastetxeko zuzendaritzak, Aloña gurasoen elkarteak, Elkar Ekin langileen elkarteak, eta Ereiten Fundazioko kideek modu koordinatuan lan egin dugu egoera bideratzeko.

Ahal dugun guztia egiten ari gara kaltetuak izan diren familiei gure hurbiltasuna, maitasuna eta baldintzarik gabeko laguntza helarazteko.

Hainbat erakundetako goi karguekin bildu gara konponbide posibleak aztertzeke eta gure esku dauden administrazio-bide guztiak landu ditugu.

Horregatik azpimarratu nahi dugu ELKAR HEZIKo hezkuntza komunitate osoak, gure **proiektuaren hazkundearen aldeko apustua** egiten dugula. 2024 ikasturtean egingo den matrikulaziorako aurreikuspenak baikorrak dira eta ilusioz eta indarrez lan

egiten jarraitzen dugu haur eta gazte bakoitzak garapen integrala lor dezan, zoriontsu izateko beharrezkoak diren baliabideak ematen dizkion eredu baten alde.

Horregatik azpimarratu nahi dugu ELKAR HEZIKo hezkuntza komunitate osoak, gure **proiektuaren hazkundearen aldeko apustua** egiten dugula. 2024 ikasturtean egingo den matrikulaziorako aurreikuspenak baikorrak dira eta ilusioz eta indarrez lan egiten jarraitzen dugu haur eta gazte bakoitzak garapen integrala lor dezan, zoriontsu izateko beharrezkoak diren baliabideak ematen dizkion eredu baten alde.

ELKAR HEZIK Oñati aberasten du, eraldaketa sozialean modu aktiboan parte hartuko duten etorkizuneko helduak heziz. **Oñati berrasmatzen ari dira jada haur eta gazte hauek. Herri anitza, euskalduna, solidarioa, inklusiboa, ekologista, feminista** eta abar sortzen beraien alea jarritz. Horregatik, ELKAR HEZIKo gela guztiak, guztientzat zabalik behar ditugu.



Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es

OHAR ETA DEIALDIAK

2023ko HAURREN DANBORRADA

Aurten irailaren 23an ospatuko dugu Oñatiko Haurren Danborrada. Hori dela eta, **2023-2024 ikasturtean 3. edo 4. mailan hasiko diren, eta/edo 2014. edo 2015. urteetan jaioetako** zuen seme-alabak parte hartzera animatu nahi ditugu.

Izen-ematea zabalik dago eta horretarako **azken eguna, ekainaren 12a** izango da. Hementxe daukazu bete beharreko formularioa: <https://forms.gle/w3XEyqKScPXkbsLw9>

Bide batez hau jakinarazi nahi dizuegu:

- Konpartsen zozketa: Zozketa antolakuntzak egingo du, ekainaren 16an, internet bidezko aplikazio bat erabiliz. Emaita emailaz jakinaraziko da. Zozketa grabatu egingo da, gurasoren batek ikusteko beharra izango balu erakusteko.
- Ohiko entseguak: Irailaren 7, 12 eta 14an izango dira, Eltzian, 18:30etatik 19:30etara.
- Entsegu orokorrak: Irailaren 19 eta 21ean izango dira, Eltzian, 18:30etatik 19:30etara. Danborradan parte hartuko duten haur guztiak bertaratu beharko dira eta LARRUZKO gerrikoa ekarri beharko dute.

Azkenik, danborradan parte hartuko duten haurren gurasoei honakoa eskatu nahi diegu: danborrada antolatzen lagundu dezaten, batez ere entsegutan eta danborrada egunean esku bat botaz. Horretarako prest egonez gero, **oinatikotanborradatxikia@gmail.com** helbidera mezu bat bidaltzea eskertuko gienuzke.

1973koen KINTADA Atzeko Kaleko jaietan

1973an jaioetakoek kintada egingo dute aurten 50 urte beteko dituztela ospatzeko. Bazkaria egingo dute, dantzaldi eta guzti, irailaren 9an. Izena emateko, **50 euro** ordaindu behar dira, izena eta bi abizen jarrita, kontu korrante zenbaki honetan: ES26 2095 5057 4091 2255 7973 (Kutxabank). Ordainketa egiteko azken eguna: **ekainaren 15a**. Kontaktua: **Kintada73@gmail.com**. Oharra: behin ordainketa eginda ez da dirua itzuliko.

1968koen KINTADA, urriaren 21ean

1968an jaioetakoek kintada egingo dute urriaren 21ean. Goizeko 11:00etan autobusean irten eta Lekeition egingo dute paseo-poteoa. Ibaigane jatetxean bazkaldu eta dantzaldia egin ostean, 20:00etan itzuliko dira Oñatira. Ondoren (21:45) Izarraitz tabernan egingo dute afari/dantza festa, gorputzak aguantatu arte. Prezioa, egun osokoa, **90€** (bazkaria, afaria eta autobusa). Gauekoa bakarrik **22,5€**. Autobusean plaza mugatuak daude. Izen-emate epea: **uztailak 15**, Laboral Kutxan (ES3230350005300050087080) diru-sarrera egin eta **izen-abizenak** emanda.



UDAL EUSKALTEGIAN C1 MAILA PRESTATZEKO IKASTAROA

- **DATA:** ekainaren 26tik uztailaren 21era

- **ORDUTEGIA:** 8:30-13:00

- **ORDU KOPURUA:** 80

- **PREZIOA:** 120,50€

Langabezian egon eta dirulaguntzarik jasotzen ez dutenek, doan; jasotzen dutenek, berriz, matrikula hobaritua izango dute.

- **MATRIKULA EPEA:** ekainaren 1etik 21era, euskaltegiko idazkaritzan.

- **OHARRA:** Ikastaro honen helburua HABEko 2. deialdiko azterketa itxira joateko prestatzea da.

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

UDARAKO PREST?


Urtero bezala uztaila ekintzez beteta etorriko da bai Kuboan eta baita Topalekuan ere. Haur eta nerabeekin egindako bileretan adostutakoak kontuan hartuta irteerak prestatzen ibili gara buru-belarri.

L.H. 5 ekoekin uztailaren 5 eta 6an Mendexako abentura parkera joango gara eta Lekeition egingo dugu lo, Trinkete aterpetxean, eta hurrengo egunean ur ekintza bat egingo dugu bertan. 6. Mailakoekin, berriz, uztailaren 12tik 14ra Donostian egongo gara. Lehen egunean Landetako aquapark batean pasako dugu eguna, eta hurrengo egunetan Donostian ibiliko gara, hor ere ur ekintzaren bat egingo dugu.

Kuboko neska-mutiko txikienekin, egun pasa desberdinak prestatzen ari gara, eta laster izango dute aukera desberdinen artean bozkatzeko aukera. Gainera, Kuboko haur guztiek egiteko beste irteera bat egingo dugu.

Topalekuan, berriz, prozesuko bi irteeren datak zehaztu ditugu. Lehengoa ekainaren 26tik 29ra egingo dugu, eta bigarrena abuztuaren 29tik irailaren 1era izango da. DBHko gainontzeko erabiltzaileekin bilerak egiten ari gara irteerak eta datak zehazteko asmoz.

Bestalde, azken hilabete hauetan haur talde batek izandako interesa dela eta, erraldioen konpartsa txikia sortu da. Hori dela eta, udaletxeak erraldi txiki batzuk egitea erabaki du, maiatzean zehar konpartsako hurrekin eta Kuboko beste erabiltzaileekin bilera egin ostean, Xabier Mendizabal eta bere lagun batek egingo dituzten erraldi berriak nolakoak izango diren erabaki zuten. Honen emaitzak uda ostean ikusiko ditugu konpartsa aurkeztean.

M^o del Mar Urrutia NegueruelaMotxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20**HARALD LINDER**

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK

PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

**Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konprometu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

**PINTURAS**
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

ELKAR HEZIKO GELA GUZTIAK GUZTIONTZAT ZABALIK 0-18

Oñatik ELKAR HEZIKo gela guztiak guztiontzat zabalik behar ditu, ezinbesteko eragilea delako herri anitza, euskalduna, solidarioa, inklusiboa, ekologista eta feminista sortzeko. Hezkuntza eredu ezberdinek herria aberasten dutelako.

Zergatik?



Aroa Tercero.
Ikaskom arduraduna

"Ikasgelan aniztasuna egote hutsak ez dakarrelako berez arrakasta akademikoa eta gizarteratzea. Gakoa aniztasun horrekin garatzen diren hezkuntza-praktiketan dago.

ELKAR HEZIn **ebidentzia zientifikoetan oinarritutako jarduerak** burutzen ditugu, **bikaintasun akademikoa zein pertsonala eta ikasle GUZTIEN bizikidetza** lortzera bideratua"



Aintzane Orueta
Ama.

"0-18 urte bitarteko haur eta gazteei pertsona izaten ikasteko prozesuan oinarriak finkatzeko tresnak eskaintzen zaizkie, **behetik gorantz eta barrutik kanporantz haz daitezten**"



Marta Gomez
Ama.

"Haur bakoitzari bere **talentuak eta gaitasun edota inteligentziaren esparru guztiak ahalik eta gehien** gara ditzan aukerak eskaintzen zaizkio"



Mikel Zubia
Ikasle ohia

"ELKAR HEZIK herri-gintzan dihardu.

Gelako 4 paretetatik haratago, Oñatin eraldaketa susta dezaketen, ekimen ugari antolatu ditugu urteetan zehar"



Mayerlin Peña
Batxi 2ko ikaslea

"Honek guztiak bere fruituak ematen ditu, arlo pertsonalean zein akademikoa. ELKAR HEZIKo ikasleek urteak daramatzate **kanpo-ebaluazio guztietan emaitza bikainak** lortzen: diagnostiko-probak, PISA, Unibertsitatean sartzeko proba"

Bazatoz proiektua ezagutzera?



**INAKI IGARTUA LOIDI** ANTIXINTXIKI TRIATLOI TALDEA

"Disfrutatzen atera nahi dut Torreauson"

» Antxintxika Triataloi Egokituko taldean hasi berria da Igartua eta Torreausokoa izango da bere lehen lasterketa.

» Handbike-ean parte hartuko du.

Ehunka herritar bilduko dira aurturaren 25ean jokatu den Torreausoko herri lasterketan, eta tartean izango da Iñaki Igartua (Oñati, 1991). Antxintxika taldearen eskutik hasi da handbike-ean ibiltzen eta Torreausokoa izango da bere aurreneko lasterketa. Disfrutatzea da bere helburua.

Zure aurreneko lasterketa izango da, baina ez zara berria kirol munduan.

Gaztetan txirindularia izan nintzen. Mendia ere gustuko nuen. Ez naiz geldirik egotea izan sekula. Baina odoleko infekzio batek gorpil aulkira eramanez orain dela bi urte, eta orduz geroztik arazo ugari izan ditut. Zorionez, iaz egin zidaten bizkarrezurreko ebakuntza bati esker askoz hobeto nago eta kirola praktikatzeko unea dela erabaki dut. Azken batean, niretako inportantea da kirola egitea; bularretik beherako nire gorputzak ez dauka indarrik, eta beste gorputz atalak indartu behar ditut, eta kirolak ematen dit horretarako aukera.

Eta Antxintxika taldeak ateak ireki dizkizu.

Bai, egia esan, gorpil-aulkian gaudenontzat oso zaila da kirola egitea. Guk behar dugun materiala oso garestia da, eta ez dago laguntzarik. Zorionez, Antxintxika taldean sartzeko aukera izan dut, handbike bat utzi didate probatzeko, eta oso eskertuta nago. Oraingoan etxean nabil, arrabolean, baina astean 10-12 ordu egiten ditut eta, egia

esan, oso gustura nabil.

Eta Torreausoko lasterketan parte hartzen animatu zara.

Hori da asmoa, bai. Egia esan, gorputzak eskatzen dit halako erronkatxo bat. Hara joan, lasterketa egin, txukun samar, ahal dela, eta nire buruarekin gustura sentitu nahi dut, bizirik.

Bide batez, aldarrikapen modura ere egin nahi dut, hemen gaudela esateko, eta geuk ere kirola egin nahi dugula eta ahal dugula erakusteko.

Garrantzitsua da Antxintxika bezalako taldeak egotea.

Ezinbestekoa. Kirol egokitua praktikatzeko duginontzat ia ezinezkoa da independente moduan aritzea; klub edo talde batek ematen duten bermea behar dugu eta, bai, Antxintxika bezalako talde bat hemen egotea zorte handia da niretako.

Beste lasterketa batzuk ere ba omen dituzu buruan. Baita Behobia bera ere.

Motibazioa edukitzea inportantea eta beharrezkoa da, baina hasi besterik ez naiz egin, eta ez dakit noraino iritsi ahal izango naizen. Sorraluzen eta hemen inguruan egiten diren beste lasterketa batzuk egiteko gogoia dut, eta Behobia ere hor dago. Azken batean erreferente inportantea da Behobia, eta polita litzateke egin ahal izatea, baina poliki poliki. Oraingoan pozik egongo naiz Torreauson parte hartu eta disfrutatzen badut.



oñabike.com

Otadi 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK



Torreauzoko lasterketa

EKAINAREN 25EAN

Ohi baino astebete lehenago jokatu da aurtengo Torreauzoko lasterketa (7,5km). Berez, uztailaren 2an behar luke, baina egun horretan Tourra Oñatitik igaroko denez, lasterketa ekainaren 25era aurreratzea erabaki du antolatetaz arduratzen den Abixaran taldeak.

Goizeko 10:00etan abiatuko dira mugikortasun mugatua duten partaideak (2 handbike, atletismoko aulki 1 eta patin gaineko lasterkari 1), eta 10:30etan gainerako korrikalariak.

Izen-ematea (10€) www.herrikrosa.eus atarian soilik egin daiteke (azken bi egunetan 18€). Lasterketa amaieran, ohi bezala, hainbat opari zozkatuko dituzte partaideen artean. Zozketa berezia egingo da aurtengo ere talde bezala (gutxienez 3 kide) parte hartzen dutenen artean.

Emakumeen partehartzea sustatzea da Abixaran taldearen beste helburuetako bat, eta pozik daude, urtetik urtera gero eta gehiago direlako; iaz 243 lagunek parte hartu zuten eta horietatik 81 emakumeak izan ziren.

GINNASIA ERAKUSTALDIA | Ekainak 3

Aloña Mendiko gimnasia erritmikoko taldeak erakustaldia egingo du plazan

Larunbatean (ekainak 3) ezohiko ikuskizuna izango dugu Foruen plazan. Aloña Mendiko gimnastak kalera aterako dira, urtean zehar kiroldegian egiten duten lana erakustera. Lide Osinagaren esanetara aritzen diren 4 eta 15 urte arteko 65 bat neska-mutiko ariko dira, plaza erdian ipiniko duten tapiz gainean, koreografia ezberdinak dantzatzuz eta musikaren erritmora gorputzak bihurtuz. Ordu bete inguruko saioa izango da, goizeko 10:30etan hasita. Berotze ariketak nola egiten dituzten erakutsiko dute aurrena, eta ondoren elementu ezberdinekin (pilota, uztaila, mazoak, zinta...) lanean ikusteko aukera izango dugu.



MENDI IRTEERA | Ekainak 18

ANDIA MENDIKATEA

Aloña Mendik ekainerako antolatu duen mendi irteera Nafarroan izango da, Andia mendikatean barrera. Iturgoien herrian abiatuta, **Mugaga** (1208m) eta **Trinidad** (1224m) tontorretara igoko dira, inguru osoa dominatzen duen ermita handira. Bista ederra dago handik. Basoetan barrena egingo dute behearako bidea, Arbizoz sakanetik, Riezu herrian amaitzeko. Denera 15 kilometroko ibilbidea (+600m), 6 bat ordutan egitekoa. Ez du zailtasunik. Irteera, goizeko 7etan postetxe parean. Ekainaren 15a da izena emateko azken eguna, Aloña Mendi tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Bazkideek 10€. Federatuta egon behar da.



Trinidad gaineko ermita



KOPA TXAPELDUNAK. Jonan Osinaga eta Iñaki Zabartek zuzentzen duten senior mailako eskubaloitza taldeak Gipuzkoako Kopa txapelketa irabazi du, finalean Tolosa mendean hartuta, 29-28. Liga txapelketan bere maila onena eman ezinik ibili da Aloña Mendi, baina kopako txapelketan atera du arantzatxoa, partidu guztiak irabazita. Zorionak!

Malen Osa munduko txapelketara

MENDI LASTERKETAK

Malen Osak maiatzaren 7an Lerinen (Nafarroa) jokatu zen Espainiako Trail Running txapelketa irabazi zuen 23 urte azpikoen mailan eta, horrenbestez, ekainaren 6tik 10era Innsbruck-en jokatu diren munduko txapelketetan parte hartuko du, Espainiako selekzioa ordezkatzuz, igoera bertikalean eta Mountain Classis probetan.



Mario Elizburu podiumean

TXIRRINDULARITZA

Mario Elizburu, Aloña Mendi Ulma taldeko txirrindularia, 3. sailkatu zen maiatzaren 20an Seguran jokatu zen kadete mailako Euskadiko txapelketan.

OLAKUA PROBA Larunbatean, ekainak 3. 36. Olakua Saria jokatu da kadete mailako txirrindularientzat. Arratsaldeko 16:30etan hasiko da eta Gipuzkoako txapelketa izango da.



» **ERAKUSKETA****Jabi Erostarberen margolanak Bidarten ikusgai**

El sitio de mi recreo kantari buruz ari zelarik, Antonio Vega musikari madrildarrak esaten zuen fisikoki eta espiritualki eroso sentiarazten zuten lekuez hitz egiten zuen paisaia-kanta bat zela.

Bada, izpiritu edo filosofia horri jarraiki, bere aisialdietarako leku kuttunen katalogoa osatu du Jabi Erostarbek. Libre eta lasai sentiarazten duten txokoak eta bertako natura, jendea, fauna eta herri



arkitektura irudikatzen duten margolanak dira, —35 marrazki eta akuarela, denera—, Bidarteko Pili Taffernaberry galerian erakutsiko dituenak, ekainaren 19tik uztailaren 2ra.

'Eman Bakia' izena jarri dio Erostarbek erakusketari, lasaitasuna iradokitzen duten irudiak direlako eta, aldi berean, Bidarteko 'Eman Bakia' etxe historikoari keinu bat egiteko.


Pili Taffernaberry galerian egongo dira ikusgai ekainaren 19tik uztailaren 2ra



Bere aisialdirako kuttunak diren lekuen 35 marrazki eta akuarela egongo dira ikusgai

***Eta orain gu goaz!* liburua plazaratu dute kultur etxeko idazketa lantegiko kideek**

Udal liburutegiak 2019an antolatu zuen idazketa lantegian jardun duten zenbait kidek ***Eta orain gu goaz!*** narrazio liburua plazaratu dute urte hauetan zehar ikasitakoa praktikan jarritz. Inazio Arregi, Miren Arregi, Edurne Errazkin, Uxue Montero, Lukene Igartua, Felipe Uriarte eta Aimar Uribesalgok parte hartu dute liburuan, eta bakoitzaren bina narrazio eta bina haiku edo poema labur jaso dituzte. Maiatzaren 25ean aurkeztu zuten kultur etxean, idazketa lantegia gidatu duen Joxemari Iturralde bertan zela. Herriko liburu dendetan eskura daiteke liburua.



***'Escuchando a mi alma'* liburua aurkeztuko du Jose Antonio Villarrek**

Espainiako Gerra Zibilaren ondorengo urteetan giro-tako nobela idatzi du Jose Antonio Villarrek. Protagonistak bere bizipenak kontatzen ditu eta orduko giroa deskribatzen du bere harreman pertsonalen bidez. **Ekainaren 6an** aurkeztuko du liburua kultur etxean (19:00).

**Herriko
txoko guztietara
iritsi nahi duzu?**

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





KONTZERTU SINFONIKOA

Ganbara Faktoriako Aequus Ensemble orkestraren eskutik

Oñatiko Ganbara Faktoriaren baitan iaz sortutako Aequus Ensemble orkestrak kontzertu sinfonikoa eskainiko du Oñatin **ekainaren 18an**, **Mikel Goiaingeruaren parrokiaren (19:00)**, Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. Soka talde bezala sortu zen Aequus Ensemble, baina aurkezpenarekin batera esan zuten poliki poliki haize familiako instrumentuak sartuko zituztela, orkestra sinfoniko bihurtzeraino, eta kontzertu hau da horren erakusle. **Equinox** du izenburua ekainaren 18ko emanaldiak. Argiaren eta iluntasunaren arteko oreka perfektuari egiten dio erreferentzia **Equinox** terminoak, eta kontraste hori islatuko du kontzertuak, obra bizi eta energetikoak txandakatuz beste melankoniatsuago batzuekin. Besteak beste, Bach, Mendelssohn eta Piazzolaren obrak intepretatuko dituzte. Txokolateixan eta www.oñati.eus webgunean eskura daitezke sarrerak.



Haur eta gazte abesbatzen TOPAKETA

EKAINAK 3, LARUNBATA
SANTA ANA, 19:00

Ganbara Kantu Eskolak antolatuta, Debagoieneko haur eta gazte abesbatzen bigarren topaketa egingo da Oñatin, ekainaren 3an.

Bailarako taldeez gain, Irun eta Villabonako talde banak ere parte hartuko dute aurtengo ekitaldian. Talde bakoitzak hiru kanta abestuko ditu, eta saioa borobiltzeko denek batera beste bi.

PARTAIDEAK

OÑATI

- Ganbara Txiki
- Ganbara Txikitxoak
- Ikasketxeak kantari

ARRASATE

- Gazte Abesbatza

BERGARA

- Orfeoi Gaztea

IRUN

- Ametsa Txiki

VILLABONA

- Eresargi Txiki

OÑATI EZAGUTZEN: OÑATIKO ITURRIAK GANBARA KANTU ESKOLAREN KONTZERTUA

Ganbara Faktoriak duela urte batzuk jarri zuen abian OÑATI EZAGUTZEN ekimena, musikaren bidez herriko ondarea ezagutzera emateko asmoz. Aurreko urteetan Oñatiko industrializazio prozesua, herriko ermitak edota Oñatiko trenaren izan dira protagonistak, eta aurtengoa gure herriko iturriari eskainitakoa izango da. Ohi bezala, Artixa taldekoen laguntzarekin egindako liburuska bat aterako dute, iturrien inguruko argazki eta informazioarekin, eta **ekainaren 17an Bidaurretan (19:30)** emango duten kontzertuan aurkeztuko dute. Sarrerak www.oñati.eus atarian eta Txokolateixan.



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA

943 089 006 688 774 531 - WHATSAPP

OINATI@COINBROKER.EUS



AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta
www.oñati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

EKAINAK 10 / 17:30

'IPAR ZIRKOA'

Haur eta gaztetxoentzako ikuskizuna
Trotamundos-Malas Compañías antzerki
konpainien eskutik. **Etzaluzen.**

BISITA GIDATUAK

EKAINAK 9 /

**GIPUZKOAKO PROBINTZIAKO ARTXIBO
HISTORIKOAN**

Lau bisita egingo dira: 10:00 euskaraz,
12:00 gazteleraz, 16:00 gazteleraz, eta
17:30 euskaraz.

EKITALDI BEREZIAK

EKAINAK 15 / 17:00

BINGO BEREZIA + DANTZALDIA

Bingo berezia opariekin eta dantzaldia.
Pake Lekun.

ERAKUSKETAK

EKAINAK 13 - 20 / 18:00-20:00

AHTren AURKAKO 30 URTEKO BORROKA
Oñatiko Astintzen taldeak antolatuta
Kultur etxean.

HITZALDIAK

EKAINAK 6 / 18:15

**HEZKUNTZA SEGREGAZIOA GAINDITU
ETA ESKOLA ARRAKASTA LORTZEKO
ESTRATEGIAK**

Hizlaria: Harkaitz Zubiri, EHUko irakasle
eta ikertzailea. Elkar Hezik antolatuta.
Kultur etxean.

EKAINAK 6 / 18:30

**'PENTSIO PUBLIKOAK: AZKEN
ERREFORMA'**

Hizlaria: Jesus Soubides (Euskal Herriko
Pentsiodunen Mugimendua). **Pake Lekun.**



MARGOLANEN ERAKUSKETA

MAIATZAK 29 - EKAINAK 11

Udaleko kultura sailak antolatutako
pintura eta adierazpen artistikoko
tailerrean parte hartu duten 6 eta
17 urte arteko ikasleen margolanak
ikusgai daude kultur etxeko
erakusketa aretara, ekainaren 11ra
arte, egunero 18:00-20:00

EKAINAK 7 / 19:00

**'ZUHAITZ HOSTOZABALEKO BASOEN
KUDEAKETA'**

Hizlariak: Aitor Onaindia (BASOA) eta
Eneko Iturbe (GEBE). **Kultur etxean.**

EKAINAK 12 / 18:00

'AZKEN AURREKO BORONDATEAK'

Hizlaria: Jesus Millas (Osakidetza). **Pake
Lekun.**

EKAINAK 13 / 18:30

AHTren AURKAKO 30 URTEKO BORROKA

Hizlariak: AHTrik EZ! plataformako
kideak. **Kultur etxean.**

EKAINAK 27 / 18:30

OÑATI ETA SEILUAK

Hizlaria: Luis Maiztegi. **Pake Lekun.**

IRTEERAK

EKAINAK 13 / 11:00

OÑATI EZAGUTZEN: ARRIKRUTZ

Pake Lekuk antolatutako irteera.

EKAINAK 17 / 9:00-13:00

**ZER EGIN DEZAKEGU BASOAK KLIMA
ALDAKETARA EGOKITZEKO? OÑATIKO
PAGADIEN IKERKETA KASUA.**

Julen Astigarraga oñatiarrak gidatuta
bisita Artasoko pagadietara. Goizeko
9:00etan Enpresagintza fakultatean.

EKAINAK 23 / 08:00

LARRUN ETA ZUGARRAMURDI.

Pake Lekuk antolatutako irteera.

KONTZERTUAK

EKAINAK 3 / 19:00

HAUR ETA GAZTE ABESBATZEN TOPAKETA

Debagoieneko haur-gazte abesbatzen
kontzertua. **Santa Ana aretoan**

EKAINAK 16 / 21:30

**UDA+MOTZ+DES-KONTROL+THE
GUILTY BRIGADE**

Rock kontzertua. **Olakuako jaixak**

EKAINAK 17 / 19:30

GANBARA KANTU ESKOLA

'Oñatiko iturriak' gai hartuta, Ganbara
Txiki taldearen kontzertua. **Bidaurretan**

EKAINAK 18 / 19:00

EQUINOX

Ganbara Faktoriaren baitan sortutako
Aequus Ensemble orkestraren kontzertu
sinfonikoa. **San Migel Parrokian**

ZINEA

EKAINAK 20 / 18:30

AHT-RIK EZ!

AHT-ren inguruko dokumentala.
Antixena gaztetxean



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

KOMEDIA jardunaldiak

Ekainak 2-3



UMOREA izango da protagonista ekainaren 2 eta 3an Oñatin. Zarramarra taldeak antolatuta, Komedia Jardunaldiak egingo dira gurean, genero honek azkenaldian hartu duen indarraren erakusle. Bakarrizketak, sketxak, gogoetak... Bada zertaz gozatu. Animatu eta parte hartu! Hona egitaraua:

Ekainak 2

• **'ALTZA KOMEDIA' MONOLOGO SAIOA:** Mikel Irazusta, Maialen Sorzabalbere, Beñat Iturbe, Antton Telleria, Ana Goitia eta Eneko Ibabe. Antixena Gaztetxean, 22:00 (5€)

Ekainak 3

• **MAHAI-INGURUA** Euskal Herriko umoregile eta sortzaileekin. Gaztelekuan (12:30) Doan.
• **'BARREXERKA' UMORE EMANALDIA** Sarrera (5€) www.oñati.eus eta Txokolateixan.



Hileko gomendioa

Indibidualak balira bezala bizi eta sentitzen diren egoeretara garamatza Bibiana Collado autoreak. Nahiz eta, berez, bizipen kolektiboak diren. Hain ongi kontatuak, hain errealak, non une batzuetan ahaztu egiten baitzaigu nobela baten aurrean gaudela.

ZINEA



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusia: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00). Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Ekainak 2 - 5

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:** Book Club (Ahora Italia)
GAZTETXOAK:



Ekainak 9 - 12

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:** Las ocho montañas (Epaimahaiaren sarira - Cannes 2022)
GAZTETXOAK:



Ekainak 16 - 19

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:** Como Dios manda
GAZTETXOAK:



Ekainak 23 - 26

ZINE KLUBA:

- **NAGUSIAK:** Padre y soldado
GAZTETXOAK:



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Ekainak 2, 3, 4, 12, 13, 21, 22 eta 30.
Uztailak 1 eta 2.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Ekainak 5, 6, 14, 15, 23, 24 eta 25.
Uztailak 3 eta 4.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Ekainak 7, 8, 16, 17, 18, 26 eta 27.
Uztailak 5 eta 6.

IULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Ekainak 1, 9, 10, 11, 19, 20, 28 eta 29. Uztailak 7, 8 eta 9.



MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA Oñatiko bulegoan bezeroei arreta emateko pertsona bat behar da. Ezinbestekoa da: komertzial lanerako abilezia, talde-lanean aritzeko trebetasuna, euskara eta gaztelania menperatzea (oinati@coinbroker.eus).

GARAIE ITXIA salgai San Juan kalean. Deitu: 608 77 10 61.

GARAIE bat alokatu edo erosi nahi nuke Portu kafetegitik hurbil. Deitu: 610 466 020

ETXEKO LANAK Oñatiko emakumea etxeko lanak egiteko gertu: 645703721

ODOL ATERALDIA

EKAINAK 9 / 16:30-20:30 enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943 00 78 84**

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK

LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40



(*) Itten: arrastua, pistia

>> EUSKERAZ EGOGI

Deklinabidia (IV)

ZEIÑEGAZ / NOGAZ, ZEREGAZ

Soziatibua	norekin	zeiñekin	zerekin
	nogaz	zeiñegaz	zeregaz

Nogaz kasuko atzizkixen ebalera-eremua kontuan hartu bihar da. Bizkai mendebaldian *-(e)gaz*, *-agaz* eta *-akaz* erregulartasunez ebalten dira. Halanda guztiz, Bizkai erdi eta ekialdian, pluralian, *-akin* ebalten da berbaz. Deba-Leintz ibarretan, gaiñera, mugagabian eta singularrian be *-(r)ekin* gero eta zabalago dabil.

Oñatin **-KIN** eta **-GAZ** dira soziatiboko kasu-markak. **-GAZ** mugatu singularrian eta mugabagian batez be: *amagaz*, *umiagaz*, *bi umegaz*, *nehikua lanegaz*... Pluralerako be **-AGAZ** markia ebalten dogu, baiña ez auzo danetan (Araotzen, adibidez, ez), eta gaztien artian be ez. Eta testuinguruak argiketan dosku singularra edo plurala dan. Haren lekuan herritar gehixenak **-AKIN** markia dabixe:

Lagun**AKIN** etorri naiz (lagun asko).

Alabi**AGAZ** etorri da (batekin)

Alaba**GAZ** edo alaba**AKIN** etorri da (batzuekin)

Dana dala, XIX. gizaldixan Oñatiko parrokiako abade Manuel Umerez Goribargoitiak idatzi zittuen bi liburuetan, korriente ebali eben **-KAZ** markia plurala adierazteko. Esaterako:

Umiakaz. Bere neguakaz eta udaakaz. Ahizpak ahizpakaz. Barriketakaz. Mesede oneicaz. Naibaguetasun orreicaz...

Hortaz:

Mugagabia	Mugatu singularra	Mugatu plurala
-(e)GAZ -(r)ekin	-AGAZ -arekin	-*AKAZ/ AGAZ/-AKIN
Neskagaz Gizonegaz	Neskiagaz (a+a=-ia) Gizonagaz	*Neskakaz / Neskagaz / Neskaakin *Gizonakaz/Gizonagaz /Gizonakin
Neskarekin Gizonekin	Neskiarekin (a+a=-ia) Gizonarekin	*=- Oñatin gaur egunian <i>akaz</i> pluralgillia ezta entzuten

Goguan hartu bihar da bokal arteko -g letria ezta entzuten eta horrek sarritan Zerez/Nortaz kasuarekin nahasketia sortu leikela.

Egixa esan, *Nogaz* eta *Zerez* kasuak nahastu edo bardinddu egitten dira askotan. Euskaltzaindiaren Gramatika batzordiarene iritziz be, batzuetan *-(e)gaz* eta *-(e)z* parekotzat hartu leike; bixak dira zuzenak eta onargarriak. Gaiñera, oso ugarixa da *-akin* atzizki plurala balixo instrumentalaz. Izan be, kasu instrumentaleko *-ez* ezta ezaguna Euskal Herriko erdi eta mendebaldian (Oñatin be ez). Halaxe, ba, *-z*, *-az* eta *-akin* atzizkixen bizikidetzai ondoko eskeman ikusi leike:

	Mugagabia	Mug. sg.	Mug. pl.
	-Z	-AZ	-*AKAZ/ AGAZ/-AKIN
Esku Oin Begi	<i>Eskuz egin</i> <i>Oiñez etorri</i> <i>Begiz jo</i>	<i>Eskuaz egin</i> <i>Oiñaz jo</i> <i>Eskumako begixaz ikusi</i>	<i>Eskuagaz edo eskuakin egin</i> <i>Oiñagaz edo oiñakin jo</i> <i>Begixagaz edo begixakin kiñua egin</i> *= Oñatin gaur egunian -akaz pluralgillia ezta entzuten

Zerez egindda dago ogi hau? Urunez, gatzez, hazkarriz eta urez bakarrik, eta azkenian, labian sartu aurretik koloria emuteko, arrautza gorringoz igurtzita.

ZEIÑEGAZ / NOGAZ, ZEREGAZ

Mugatu singularrian

Mugabagian

<i>Nere lanAGAZ gustura nauk/n</i>	<i>Baxabik/n hori nehikua laneGAZ</i>
<i>BastoiAGAZ jo eben buruan</i>	<i>Ikusitta gagoz gizon hori bi bastueGAZ ibiltten.</i>
<i>AstuAGAZ fan dok/n</i>	<i>Ze astoGAZ fan dok/n?</i>
<i>LagunAGAZ ikusi xuat/xonat</i>	<i>Ze laguneGAZ ikusiko dok/n?</i>
<i>Hogei urte betetiAGAZ batera ezkondu zan</i>	<i>Zenbat urteGAZ ezkondu zan? Hogei urteGAZ.</i>
<i>SegiAGAZ ebagi dot sail dana</i>	<i>Hiru segaGAZ ebagi dot sail dana</i>
<i>Patxiren aizkoriAGAZ bota dot arbola</i>	<i>Ze aizkoraGAZ bota dok/n arbola?</i>
<i>Ameriketatik diruAGAZ etorri zuan/zunan</i>	<i>Orain ondo bizi dok/n nehikua diruGAZ</i>
<i>GizurrAGAZ ez haiz urrin fango</i>	<i>Hainbeste gizurreGAZ higuindduta nauk/n</i>
<i>Hemengo lurrAGAZ teillak egin leike</i>	<i>Nora hoia hainbeste lurreGAZ?</i>
<i>Eguraldi beruAGAZ hala moduz ibilli giñan han</i>	<i>Lau-bost beroGAZ larriketan gara ta!</i>
<i>Zeiñen kotxiAGAZ fan da?</i>	<i>Zenbat kotxeGAZ fan dira?</i>
<i>Aurten kanaleko bueltia egitteko goguAGAZ nago</i>	<i>Nik, berriz, eztakot bape gogoRIK buelta hori egitteko</i>

Oharra: irakurri bokal arteko 'g' letria agoskau barik, hori mutua da eta.

Izen propixuak mugabagian: PatxiGAZ, AnderreGAZ, MireneGAZ, AlbertoGAZ, JuleneGAZ...

Erakusliak

Honegaz, horregaz, haregaz, honeigaz, horreigaz, hareigaz (pluralak gutxiago ebaliak gaur egunian)
Honetxegaz, horretxegaz, haretxegaz, honeitxegaz, horreitxegaz, hareitxegaz (-XE /-TXE inddartzailliaz)

Izenordain pertsonalak

Neregaz, hiregaz, haregaz, guregaz, zuregaz, zuegaz, hareigaz
Neugaz, heugaz, beragaz, geugaz, zeugaz, zeuegaz, euragaz (forma inddartuak)

Nerekin, hirekin, harekin, gurekin, zurekin, zuekin, hareikin
Neurekin, heurekin, berarekin, geurekin, zeurekin, zeuekin, eurakin (forma inddartuak)

Izenordain alkarkarixak: alkarregaz / alkarrekin



LANA

Innovation from nature



BEAM HABE-20



**THREE-LAYERED
SHUTTERING PANEL
IRU-PU & STD**



PELLET



LANA S. Coop.
Czech LANA s.r.o
www.lana.eu